

# KUDEAKETA TXOSTENA

BATZORDE ERAGILEAREN  
KONTU EMATEA

**benetan  
garrantzitsuak  
diren gauzak**

lo esencial,  
lo más importante

**Aktibatu Lortu Zaindu**

2021eko azaroak 24 · 25  
Euskalduna Jauregia

**ELA**

**15. KONGRESUA**

[www.ela.eus/kongresua](http://www.ela.eus/kongresua)



# KUDEAKETA TXOSTENA

BATZORDE ERAGILEAREN  
KONTU EMATEA



**benetan  
garrantzitsuak  
diren gauzak**

lo esencial,  
lo más importante

**ELA**

**Aktibatu Lortu Zaindu**

2021eko azaroak 24 · 25  
Euskalduna Jauregia

**15. KONGRESUA**

[www.ela.eus/kongresua](http://www.ela.eus/kongresua)



**benetan garrantzitsuak diren gauzak**

Aktibatu Lortu Zaindu

## Contenido

<b>Sarrera</b> .....	<b>7</b>
<b>1. Aldi honetako testuinguruaren zenbait ezaugarri</b> .....	<b>7</b>
a) Kapitalismoaren alternatibak behar ditugu.....	7
b) Estatu-krisia.....	8
c) Euskal Herrian, politika publikoen joera neoliberalaren jarraipena .....	8
d) Oposizio izan nahi duen ezkerria behar dugu .....	9
e) Atzerapausoak Nafarroan. Erregimenaren itzal luzea .....	9
<b>2. Ezusteko erronka: Pandemia bati erantzun beharra</b> .....	<b>10</b>
<b>3. Lan prekarioari heltzen dion negoziazio kolektiboa</b> .....	<b>12</b>
a) Negoziazio kolektiboa asko bizkortu zen pandemia aurretik.....	12
b) Grebarik gabe akordio batzuk ezinezkoak dira.....	13
c) Erreformen ostean estalduraren zati handi bat berrezarri dugu .....	14
d) Prekarietatearen kontrako gatazkak.....	14
e) Enplegua hobeto defenditzeko taldea.....	14
f) Negoziazio kolektibo feministaruntz.....	15
g) Estatalizazioaren kontrako borroka .....	15
<b>4. Trantsizio sozial, ekologiko, demokratiko eta feministarako bidean</b> .....	<b>16</b>
a) Elkargune sindikal eta sozial baten aukerak egiaztatu ditugu .....	16
b) Ekintza sozialaren aldeko apustua .....	17
c) Martxoaren 8ko greba feministak .....	18
d) 2020ko urtarrilaren 30eko greba orokorra .....	18
<b>5. Prozesu nazionalari buruzko diagnostiko errealista eta partekatuaren beharra</b> .....	<b>19</b>
<b>6. Ohiz kanpoko Kongresua: Idazkari Nagusiaren erreleboa</b> .....	<b>21</b>
<b>7. Antolakuntza lana oraindik ere funtsezkoa da</b> .....	<b>21</b>
a) Kongresu arteko aldi batetik haratago doan lana .....	21
b) Plangintzan aurrera egin .....	22
c) Eraikitzen ari den sindikatu feminista .....	23
d) Erakunde gero eta euskaldunagoa .....	23
<b>8. Hazkundera hauteskundeetan eta afiliazioan</b> .....	<b>24</b>
<b>9. Beste arlo eta ardura konfederaletakoa lana</b> .....	<b>24</b>
a) Azterketa Bulegoa: analisi eta proposamenak ikuspuntu kritikotik .....	24
b) Ingurumenarekiko konpromisoa, gero eta biziagoa.....	25



c) Nazioarteko agenda eta elkartasuna .....	26
d) Zerbitzu juridikoak. Oinarrizko tresna errealitate gero eta konplexuagoan .....	27
e) Egokitzapenak eta komunikazio-tresna berriak.....	29
f) Manu Robles-Arangiz Fundazioa .....	30
g) ELAren urrats berri bat Iparraldean .....	31
h) Euskara.....	31
<b>10. Onartzeko eskaera.....</b>	<b>32</b>

## **Sarrera**

Kudeaketa txosten honek Batzorde Eragileak azken lau urteetan bultzatu duen lanaren berri eman nahi du, ponentzia eta ebazpenetan jasotako kongresu-aginduaren baitan. Testuak, halaber, militanteekin partekatzeo aukera ematen digu zein testuingurutan mugitu garen, baita garai honetan atera ditugun ondorioak ere.

Aldi atipikoa bizi izan dugu, bi eratako inguruabarrek baldintzatua: Batetik, 2019ko ohiz kanpoko Kongresua, eta bestetik, oraindik pairatzen ari garen pandemia. Horregatik, lehen-lehenik aipatu nahi ditugu kongresu arteko aldian hil diren militanteak, batik bat hilotan pandemiaren ondorioz utzi gaituztenak. Egoera gogorra bizitzeaz gainera, kasu askotan ezin izan ditugu agurtu, ez omenaldi apal bat ere eskaini. Oso gogorra izan da. Beraz, izan bitez hitzok haiek oroitzeko eta esker ona adierazteko, baita haien senide eta sindikatuko lagun guztientzat ere. Agur eta ohore!

Esan bezala, pandemiak sindikatuaren lana goitik behera baldintzatu du. Oraindik amaitu ez den krisi sanitario, sozial eta ekonomikoa agerian utzi du, antolakuntza aldetik zein ekintza sindikal, sozial eta politikoari dagokionez oraindik erronka handia delarik. Zorionez, bizi izan ditugun egoera hain zailetan, politikaren eta aktore ekonomiko nagusien aurrean sindikatuak erakutsi du "oinarrizko" tresna dela: izan ere, krisiaren ondorioei aurre egin behar dien langile-klasearentzat ekintza kolektiboaren indarra baita bitarteko eragingarri bakarra.

Egoera gogor hauetan are balio handiagoa agertzen dute gure nortasunaren ezaugarriek, esaterako autonomia politiko eta finantzarioak. Ezaugarri hauek ez dituzte beti ondo onartzen erakundeek, eragile sozialek eta alderdiek, baina gure ekintzaren erdigunean kokatzeko aukera ematen digute "funtsezkoa, garrantzitsua" dena, klase xeheek aurre egin beharreko arazoak. Horregatik, kontrabotereko gure eredu sindikalak gero eta sostengu handiagoa du, elkarrizketa sozialak ez bezala, zeina inertzia antzuan erori baita. Gure ustez, soilik ekintza eta mobilizazio sindikal eta sozialak eskaintzen du modua agertoki politiko, sozial eta mediatikoan langile-klasearen helburuak kokatzeko.

## **1. Aldi honetako testuinguruaren zenbait ezaugarri**

### **a) Kapitalismoaren alternatibak behar ditugu**

Duela hainbat hamarkada ziklo neoliberal bat hasi zen, zeinaren xedea zen desarautze laborala eta sozialaren bitartez kapitala areago metatzea; honen ondorioak gaur arte ari gara sentitzen. Ziklo horren bereizgarrietako batzuk dira globalizazio eredu (pandemian are nabarmenagoa), planetako baliabideen ustiaketa eta harrapaketa gero eta handiagoak eragindako pobrezia; horiekin batera, azken urteetan eskuin muturraren eta autoritarismoaren gorakada izan da.

Pandemia aurreko urteetan mobilizazio sozialak asko gehitu ziren munduko leku askotan ikuspuntu sozial, ekonomiko eta ekologikotik jasanezina den kapitalismoari kontra eginez. Horietako asko Latinoamerikan gertatu ziren, hain zuzen ere, neoliberalismoaren laborategian. Oinarrizko produktu eta zerbitzuen garestitzeak eta bizi-baldintzen gainbeherak beste gizarte eredu baten eta emakumeen eskubideen aldeko borroka suspertu dute; halaber, matxinada herritarrak piztu dituzte Kolonbian, Txilen, Brasilen, Hondurasen nahiz Argentinan... European ere, batez ere Frantzian, erreakzioak izan dira, esaterako Jaka Horiarena.



Esan dugun bezala, laurteko honetan mundu mailako erasoak jo du eskuin mutur neoliberal, arrazista, xenofobo, antifeminista, anti LGTBIQ+, erreferentzia kolektiboaren eta sindikalismoaren etsaiak. Oldarraldi hau ordezkari politiko europarreraino iritsi da, non kutsu horretako alderdiak gobernuen buru diren edo agintariak baldintzatzen dituzten. Jakina da desberdintasunak, langabeziak, prekarietateak eta biztanleriaren sektore handientzako etorkizunik ezak eskuin muturrari aukera aparta eskaintzen diotela bere proposamenak hedatzeko gizarte batean, zeinetan birbanaketa politikarik ere ez dagoen.

Errealitate honek ezkerreko indar guztiok (politiko zein sindikalak) interpelatu behar gaitu, eta bultzatu erreferentzia eta alternatibak eraikitzea, oinarritzat hartuta klase herrikoien eta langile-klasearen antolakuntza. Ezin dugu geure gain hartu eraso hori erantzunik gabe uzteko arriskua, eta gure eginkizuna da erreferentzia kolektiboak sendotzea lan munduan eta gizartean.

### **b) Estatu-krisia**

Kongresu honetan eztabaidatuko den ponentziak diagnostiko aski zabala egiten du espainiar estatuak pairatzen duen krisi multidimentsionalaz. Txosten honetan soilik aipatuko dugu zenbaterainokoa den krisi politiko eta konstituzional hori.

Krisi hau jatorrian banaezina da 2008an nazioarteko finantza- eta ekonomia-krisiarekin hasi zen hartatik; espainiar gobernuak krisia baliatu zuten eskubide laboral eta sozialak murrizteko programa gogor bat ezartzeko, eta austeritate politika bat aplikatzeko, zeinaren ondorioak gaur arte jasaten ari garen. 2014tik aurrera, bata bestearen atzetik makina bat ustelkeria kasu agertu ahala, espainiar estatuak inoiz ezagutu gabeko ordezkari politikoaren krisia bizi du; honi erantsi behar zaizkio zeharo ustela dagoen monarkiaren krisia eta prozesu katalanak planteatu zuen gatazka nazionala, zeinaren ondoren sekulako eskalada errepresiboari ekin ziotelarik. Halaber, estatu-krisiak zantzu nabarmenak ditu botere judizialan, trantsiziotik hona sektorerik kontserbadore eta inboluzionistek menpean daukatena.

Azkenik, eskuin muturraren gorakadak arku politiko guztia astindu du. Inboluzio politikoaren arriskua (ondorio sozial eta nazional larriak dituen) agerikoa da, baina salatu beharra daukagu ezkerreko indarrek arrisku horri heltzen diotela hain zuzen agenda sozial eta progresista bat aurrera ez eramateko, hau izango litzatekeen arren eskuinaren hazkundera geldiarazteko modurik egokiena.

2020ko urtarrilaren 30eko greba orokorrean besteak beste aldarrikatu genuen aurreko hamarkadan ezarritako lan- eta pentsio-erreformei indargabetu behar zirela. Espainiar estatuko koalizio-gobernuak ia ez du horretarako benetako urratsik egin. Aitzitik, europar funtsak jasotzeko erreformak aplikatu behar dituelako aitzakiarekin orain atzerapauso gehiago egin nahi ditu pentsioetan.

### **c) Euskal Herrian, politika publikoen joera neoliberalaren jarraipena**

Pandemiaren ondorioz, Europar Batzordeak aldi baterako eten egin ditu europar marko austerizida definitu zuten arau fiskalak; marko hura gure gobernuak (Barkos, Chivite eta Urkullurenak, baita Aldundiek ere) modu akritikoan ontzat eman izan dute, eta Estatuko gobernuarekin behin eta berriz adostu izan dute.



ELAk salatu zuen Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak eta Aldundiek sinatutako akordio horiek autogobernuaren kontrako eraso zirela. Rajoyren gobernuak EAJren botoari esker atera zuen aurrera “gastu-sabaia” izenekoak; hau berez administrazio guztien erabakitzeke ahalmena mugatzeko kortse bat da, baita Hego Euskal Herriarena ere. Politika horri eta bere mekanismoari irmo egin diegu aurre, eta indar politiko aurrerakoiak interpelatu ditugu akordio horiek arbuia zitzaten.

Nazioartean AEBetako Bidenek, NDFk eta OECDk (inondik ere sozialista izateko susmagarri ez diren ahotsak) ohartarazi dute zerga-politika zeharo aldatu beharra dagoela. Noski, adierazpen hauek interpretatu behar dira kapitalismoaren larrialdi-irteera gisa, honek orain irizten baitio zuhur jokatu behar duela iraungo badu. Baina deigarria da indar eta erakunde asko zein berandu lotu zaizkion oraindik ere aplikatzen diren austeritate politikari buruzko kritikari. Halaber, onartezina da gure erakundeek zein temati eusten dioten zerga-politika injustuari. 2021eko lehen seihilekoan bestelako fiskalitate baten alde egin genuen kanpainaren helburua, hain zuzen, izan zen egoera hain larria nabarmentzea, eta egiazko bezain premiazko mezu bat bota genuen: zerga-erreformarik gabe austeritatea etorriko da. Ardatz nagusi hau lantzen jarraitu behar dugu.

#### **d) Oposizio izan nahi duen ezker behar dugu**

Aurrekontuen eta zerga-politikaren inguruko eztabaidetan agerian geratu da EH-Bilduren eta Elkarrekin-Podemosen posizioak ez datozela bat ELAren aburuz ezkerreko indar politikoek izan behar duten jarrerarekin: indarrok gobernuak aplikatzen ari diren ereduaren eta politiken aurka jo behar dute, eta horien alternatibak plazaratu.

ELAk iritzi publikoaren aurrean salatu egin zuen 2020rako Elkarrekin-Podemosek eta Urkulluren gobernuak itxi zuten aurrekontu-akordioa. Izan ere, ez baitzen nahikoa, eta aurrekontua bere horretan utzi zuen gobernuaren superabita 800 milioitara iritsi zen urtean. Eusko Jaurlaritzak berak akordioa itxi zen hil bertan argitara eman zuen inkesta baten arabera pobrezia-tasa 1986tik honako altuena izan da. Ezker politikoaren eginkizun politikoa akordio horiek prentsan ematen duten oihartzunera mugatzea, edota “erabilgarritasun politikoa”ren kontzeptura, zeina oso eztabaidagarria den, ELAren iritziz saihestu beharreko bidea da.

Eztabaida horixe izan da EH Bildurekin. Urkulluren gobernuak Legebiltzarrean gehiengo absolutua izanik eta oso kutsu antisoziala duten politikak ezartzen ari dela, ulergaitza da EH Bilduren jarrera, aurrekontuak negoziatzen tematzea, irakurketa kritikoa egin eta alternatibaren beharra aldarrikatu ordez. Ogasun sailburuak berak hau esaldi batean jaso zuen: “Aurrekontuei buruzko kritika frontalik ez dago; ondorioz, babes inplizitua dute”.

Are argiago ikusi da Nafarroan aurrekontu- eta zerga-eztabaidari garrantzia nola kentzen zaion. EH Bilduk Barkosen eta Chiviteren gobernuari eskaini dizkien aurrekontu-akordioen balioa goraiapatuta, diskurtso politikoan ez da ageri politiko hegemonikoekiko erreferentzia kritiko eta alternatiborik.

#### **e) Atzerapausoak Nafarroan. Erregimenaren itzal luzea**

Aurreko Kongresuan nabarmendu genuen ez zela alferrik galdu behar UPN Nafarroako Gobernutik ateratakoan ireki zen garai politikoa. ELAk aintzat hartu zituen Barkosen gobernuak hainbat eremutan egin zituen aldaketak: memoria historikoa, euskara, Skolae programa edota CEN, UGT eta CCOOen pribilegioen amaiera (azken hau ELAk egindako salaketa



kanpaina indartsuen ondoren). Haatik, aldaketa ez zen inola ere iritsi gai ekonomiko eta sozial nagusietara.

ELAk hasieratik erabaki zuen interpelazioa eta mobilizazioa konbinatzea, aldaketak arlo guztietan aurrera egin zezan. Zorrotz jokatu genuen, taxuz, uste baikenuen eskuina gobernura itzultzeko aukera behin betiko ixteko modua zela politikak benetan aldatzea. Gobernuako sektore batzuek eta bere sozioek ez zuten beti ulertu gure jokabidea; beste sektore sozial batzuek uste zuten interpelazioak eta mobilizazioak soilik eskuinari egiten ziola mesede. Guk, aldiz, uste dugu desmobilizazioa eta isiltasuna direla ekinbide okerrenea aldaketa agenda bat bultzatzen ez denean, edozein dela ere agintean dagoen indar politikoa.

Esaterako, Barkosen eta Chiviteren gobernuak temati ukatu dute fiskalitatea aldatzea, eta AHT eraikitzen jarraitu dute. Gainera, gobernuak aurten hizkuntzaren arloan atzerapausoak eragin ditu (euskara administrazioan arautzen duen lege berriarekin) eta elkarrizketa sozialeko eredura itzuli da, nahiz eta hau ustez gaingiduta zegoen (areago haren inguruan izandako eskandaluen ondoren); elkarrizketa soziala hemen dugu berriz, oraingoan UGTk, CCOOK eta CENek sinatu duten Enplegu Planarekin.

## **2. Ezusteko erronka: Pandemia bati erantzun beharra**

Arestian esan dugun legez, pandemiak sindikatuaren jarduna erabat baldintzatu du azken urte eta erdian. Berebiziko antolakuntza esfortzua eskatu digu, eta aurre egin behar izan diogu enpresa zein sektoreetan birusa hedatzearen kontra ezarritako neurri eta murrizketek sortutako egoera konplikatuari. Honek eragin handia izan du gure lan egiteko moduan, harreman pertsonaletan, gertutasunean eta talde-dinamikatan oinarritzen dena.

Beraz, pandemiak gure agenda, lehentasunak eta lan egiteko moduak aldarazi ditu. Aurrera egin ahala berrikuntzak egin behar izan ditugu, teknologia berriei eta online arretari lotuta. Sindikatuaren jardura bermatzea izugarrizko erronka izan da, eta ahalegin kolektibo handi bat eginez heldu diogu honi. Zorionez, ez gara inola ere blokeatuta geratu; aitzitik, sindikatua martxan jarraitzea lortu dugu, gure afiliatuei zor zaien zerbitzua eta arreta eskainiz: Gainera, jarraitu dugu (mugekin, bistan denez) negozioazio kolektiboa, hauteskunde sindikalak (batzuetan geldituta izan direnak) edota ekintza politiko eta soziala dinamizatzen.

Pandemiak bete-betean eragin zion Lan Osasuneko Arloari, zeinak salbuespenezko egoera bati aurre egin behar izan zion. Gure administrazioek albo-kaltetzat jo zuten langile-klasearen osasunaren gaineko arriskua, eta sindikatuak oso erantzun gogorra eman behar izan zion horri.

Osasun publikoari zegokionez pandemia hedatu ahala arauak aldatuz joan direnez, lan handia egin dugu une bakoitzean indarrean zeuden arauetara buruzko informazioa emanez, eta egoera bakoitzari buruzko aldarriak egin ditugu, federazioen eta Lan Osasuneko Arloaren arteko lankidetzari esker.

Salaketa ugari egin dugu prebentzio neurriak betetzen ez zirelako. Hauetako askok, zerbitzu juridikoen bitartez, aldeko epaiak ekarri zituzten; Osakidetzan eta Ertzaintzan ebazpenak erreferentzialak izan dira, eta administrazioak prebentzio neurriak hartzera behartu dituzte.

Langileen eskubideen alde etengabe egin ditugu mobilizazioak. Gogoratu beharra dago ezen, langileen bizia arriskuan zegoenean, gure ordezkari batzuek (hurrengo paragrafoetan

zehaztuko denez) enpresaren jarduera etetea erabaki behar izan zutela, administrazioek erabaki hau babestu ez bazuten ere. Bestalde, proposamen politikoak ere egin ditugu (adibidez, salbuespen egoera honetarako berariazko ikuskari talde bat eratzea), eta lan osasuna eztabaidaren erdigunean kokatu dugu.

Ez da erraza izan lantokietan hainbat premiazko egoerari erantzutea. Konfinamendu aldiak, langile asko, batik bat emakumeak, praktikan oinarritzako behargintzat jo zituzten; haatik, paradoxa da hauetako asko lan prekarioa pairatzen ari direla. Hori izan zen, esaterako, merkataritzako eta garbikuntzako langileen kasua: lanera segurtasun baldintzarik gabe joan behar izan zuten, eta eurek egindako materialekin babestu behar izan zuten beren burua. Gauza bera gertatu zaitzaien zahar-etxeetako langileei ere; sektore honetan izan dira kutsatze kasu gehienak, eta babes neurriak ezarri ziren soilik sindikatuaren salaketa kanpainaren ondoren. Gogoratu beharrekoa da Gipuzkoako egoitzetako langileek greba eten egin zutela eta beren lanpostuetara egoera dramatiko batean itzuli zirela.

Sektore sanitario eta soziosanitarioko langileek –hala anbulantzietakoek, nola Osakidetzako zein Osasunbidekoek– zentroak gainezka egotea, lanorduen luzapena, segurtasun eza eta akidura psikikoa pairatu dute; honen ondorioek badiraute, eta aurrerantzean ere iraunen dute.

Konfinamenduaren lehen egunetan industria eta eraikuntzako enpresa asko jarduerari eusten saiatu ziren, agintariek aitortzen zuten moduan heriotzak eta kutsatzeak gehituagatik ere. Enpresek ez zuten jarduera aldi baterako bertan behera utzi nahi, eta administrazioak inplikatzeko ez zirenez, zenbait enpresetako langileek –esaterako, Mercedes, Sidenor edo Tubacexekoek– ausardia eta ardura handiz gutxieneko segurtasuna bermatu arte jarduera gelditzea erabaki zuten, egundoko arriskua hartuz.

Ugazaben mehatxuak etengabeak izan ziren, baita Tapia sailburuaren gutxiespen politikoa ere; honek esan zuen (larrialdi sanitario betean) AHTren lanarekin jarraitzea oinarritzako lan atzeraezina zela, aspaldian urtetako atzerapena daraman arren. Tonu berean mintzatu zen Confedebaskeko lehendakaria behin eta berriz: Eusko Jaurlaritzak hauspotuta jarduera behin behinean etetea ukatu zuen erabat. Chiviteren eta Urkulluren gobernuek (batez ere azkenak) lantokiak kostatuta ahala kostatuta irekita jarraitzea erabaki zuten. Jokabide hau sekulako arduragabekeria izan zen osasun publikoaren aldetik, baina baita porrot ekonomikoa ere.

Kudeaketa sanitarioak, berriz, porrot egin du Europan, koronabirusarekin bizitzea erabaki zen heinean. Birusa erazteak erabaki zuten herrialdeek (Asian eta Ozeanian) neurri gogoragoak ezarri zituzten, gaur arte, baina baita iraupen laburragoa izan dutenak; enpresen jarduera beharrezko denean geldiarazi izan dute. Datuak ukaezinak dira: Kutsatze gutxiago izan dute, bizimodu normalagoa egitea posible izan da eta ekonomiek kalte arinagoa jasan dute.

Garai honetako ondorio nagusietako bat izan da zerbitzu publikoak eta osasun- zein zaintza-sistemak funtsezkoak direla pandemia bati aurre egiteko. Gizarte guztia izan da honen jakitun. Tamalez, ordea, lehen arreta ez da indartu (hau zen Osakidetzan deitutako greben aldarrietako bat), eta ez da berrikusi egungo zaintza-sektore zein -eredu guztiz prekarioa; eremu honetan hainbat greba sustatu dugu (batzuetan ELAk bakarrik) publikazioaren alde.

Detekzio eta prebentzio lanak ere ez dira nahikoak izan. Esaterako, EAEko protokoloak alde batera utzi zuen garraio publikoa, mugikortasuna edota lan mundua. EAEn 2020ko urriaren eta 2021eko urtarrilaren bitartean koronabirus agerraldien %70etik gora lan eremuan antze-



man ziren. Jaurlaritzak arlo honetan ez zuen inongo neurririk hartu, eta entzungor egin zien ikuskari lantaldea zabaltzeko ELAk luzatutako proposamenei.

Eusko Jaurlaritzaren eta Nafarroako Gobernuaren lehenetsuna izan da ahal zen gutxien gastea. Horrela ulertzen da 2020an, pandemiari aurre egin behar zitzaionean, bi gobernuak aurrekontua bere horretan mantendu izana, gastua handitu gabe, europar herrialde gehienetan ez bezala. Zikoizkeria horren beste ondorioa izan da pandemiak kaltetutako pertsona eta sektoreei emandako laguntza eskasa. Europako beste gobernu batzuen aldean, baita Espainiakoaren aldean ere, gure agintariak nabarmen geratu dira.

Eremu politikoan agintarien helburua izan da kostu politikoa ekiditea. Hau begi-bistakoa izan da alarma egoera deklaratzekoan. Urkulluren gobernuak lehen asteetan erabat kontrako jarrera agertu zuen, enpresek irekita jarrai zezaten; aurrerago, berriz, Estatu mailan alarma-egoera luzatzearen alde egin zuen, neurriak aplikatu ahal izateko.

ELAk galdegin du krisi honi eman behar zitzaion irtenbidea ezin zela izan 2008koaren modukoa. Egoeraren larria zela eta Urkulluren eta Chiviteren gobernuak eratu zituzten "Krisi Mahai"etan parte hartzea erabaki genuen. Hala ere, EAEn hiru bileretara joan ginen, baina gure proposamenezikiko interesik ez zegoela ikusirik gehiago ez parte hartzea erabaki genuen.

ELAk erakunde eta alderdi politikoei eta instituzioei luzatutako proposameneetako asko egin Nazio Batzordeak pandemia betean egin eta ontzat emandako dokumentu batean jaso dira: "Krisiarentzako bidezko irtenbide baten alde". Dokumentua –2020ko konfinamendua hasi eta bi hilabete eskasera plazaratu genuela– sindikatuak jarraitu beharreko ildoak zehaztu zituen.

Horrenbestez, eta berriz ere pandemiak sindikatuaren bizitzan izan duen eraginari helduz, hilabete batzuk igarota, aitortu beharra dago gure organizazioak egunik zailenetan lan osasunaren alde egindako guztia. Hau oso koherentea da aste batzuk lehenago, urtarrilean, egin genuen greba orokorraren mezuarekin: lehenik, bizitza.

Batzorde Eragileak uste du ahalegin kolektiboa egoerak eskatzen zuenaren tamainakoa izan dela. Sindikatuko arduradun bakoitzaren konpromisoaz harro gaude, egoera oso konplikatuei egin behar izan baitiete aurre, plano emozionaletik hasita, eta zaintza lanak lan-egun bikoitzen bidez posible eginez. Konpromiso hori da gure erakundearen dohainik hoberena. Eskerrik asko guztioi izugarritzko erronka honi erantzun izugarria ere eman diozuelako.

### **3. Lan prekarioari heltzen dion negoziazio kolektiboa**

Aurreko kongresuko ponentzian helburu bat ezarri genion geure buruari, negoziazio kolektiboa suspertzea bi borroka-eremu lehenetsiz: prekaritatea eta genero diskriminazioa. Helburu horiek iristeko ezinbesteko jotzen genuen gure gatazka- eta greba-ahalmena hobetzea.

#### **a) Negoziazio kolektiboa asko bizkortu zen pandemia aurretik**

Pandemia aurretik greba kopurua gora egin zuen gurean. EAeko Lan Harremanen Kontseiluak emandako datuen arabera (Nafarroako daturik ez daukagu), 2017 eta 2019 bitartean grebak bikoiztu egin ziren, eta grebalarien kopurua, %800 hazi. Joera honetan oso pisu han-

dia izan zuten mugagabeko zenbait grebak, batik bat sektore eta enpresa jakinetako borroka luze eta gogoangarriak, kasu batzuetan sektore feminizatuetakoak, esaterako Bizkaiko eta Gipuzkoako adinekoen egoitzetakoak, baina baita Bizkaiko Metalekoa, Itunpeko Irakaskuntzakoa eta Gipuzkoako Papergintza eta Arte Grafikoetakoa ere.

Pandemiaren ondorioz grebak eten eta negoziazio-dinamikak bertan behera geratu ziren. Alabaina, datu ofizialik ez badago ere, dagoeneko ari gara antzematen 2021ean greba kopurua asko hazi dela (sektore batzuetan, hala nola Merkataritza, Garbikuntza, Zaintza... enpresa askotan izan diren kaleratzeen ondoriozko gatazkak, herri-administrazioetan bitarteko langileen kontsolidazioaren alde...).

### **b) Grebarik gabe akordio batzuk ezinezkoak dira**

Berriro egiaztatu dugu grebarik gabe ezinezko izaten dela zenbait akordio. Greba behin betiko tresna da prekarietateri aurre egiteko. Sektore eta enpresa askotan hobekuntza egokiak lortzeko bide bakarra greba luzeak izan dira; batzuetan ELA bakarrik, esaterako Bizkaiko zahar-etxeetan (378 eguneko gatazka), non sektore prekariora izanik hobekuntza handiak erdietsi ziren, edota beste sindikatu batzuekin: Itunpeko ikastetxeetan 27 greba egun behar izan ziren hamar urte lehenago galdutako hitzarmena berreskuratu eta hobetzeko. Halako borrokarik antolatzeko moduan izan ez garenetan gobernuek negoziazio kolektiboa zeharo blokeatzen dute.

EAEko irakaskuntza publikoan LABekin eta Steilasekin batera greba dinamika bat garatu genuen, zeina bi sindikatu horien erabakiz bukatu zen administrazioak eraikitako horman pitzadurarik egin gabe: bestelako negoziazio kolektiboa posible dela erakusteko aukera galdu genuen administrazioetan ere. Nafarroako sektore publikoko negoziazioa goitik behera baldintzatu du LABek, UGTk eta CCOOk Gobernuarekin sinatutako akordioak. Gogoratu beharrekoa da ELAk salatu zuena: akordio hori garatzeko ezinbestekoa zen Gobernuak ekitaldi bakoitza superabitaz ixtea, hots, austeritate politikak indarrean jarrai zezan.

Gehiegizko zerbitzu minimoak ezarriz greba eskubidea hustuta geratzen ari da eremu askotan, edo mugatuta; gatazkak luzatu egiten dira, eta horrek negoziazio dinamika baldintzatzen du. Gutxieneko zerbitzuen ezarpen horrek eragin berezia du eremu feminizatuetan, esaterako Zaintza eta Garbikuntzan; sektore hauek oinarrizkoak bezala hartzen dira gutxieneko zerbitzuak ezartzeko, baina ez da berdin jokatzeko sektore maskulinizatuetako baldintzekin parekatzeko orduan. Praktikan, gutxieneko zerbitzuek emakumeen borroka itotzen dute, lantokietan pairatzen dituzten arrakala eta diskriminazioei aurre egin nahi dietenean. Datuek diote gizonezkoen %62,1ak duela hitzarmen eguneratua; aitzitik, soilik emakumeen %47a zegoen egoera berean.

Azkenik, Nafarroan borroka bultzatzerakoan beste sindikatuen jokabideak baldintzatu egin gaitu, EAEn baino ordezkari handiagoa baitute. Horrek mugatu egiten gaitu enpresa eta sektoreak aktibatzerakoan. Hau nabarmena izan da sektore feminizatuetan (Zaintza esparruan greba guk bakarrik deitu genuen, eta Garbikuntzan CCOOk eta UGTk grebaren bezperan itxi zuten akordioa). Orobat, LABekin arazo handiak izan ditugu sektore publikoa aktibatzeko, greba dinamikei uko egin baitie behin eta berriz.



### c) Erreformen ostean estalduraren zati handi bat berrezarri dugu

Mobilizazio eta greba giro honetan negoziazio kolektiboaren estaldura asko hobetu da. Honi buruz ere Nafarroako daturik ez dugunez, EAeko irakurketa besterik ezin dugu egin. Hitzarmena eguneratuta duten langile kopurua 2017ko %33,2tik 2020 amaierako %55,4ra-ino eraman dugu, eta inolako estaldurarik ez duten langile kopurua %17,9tik %9,8ra-ino jaitsarazi. Igoera horretan eragin handia izan dute sektoreko lan-hitzarmen maskulinizatuen eguneratzeak (Bizkaiko eta Gipuzkoako Metala, Bizkaiko Eraikuntza), mobilizazio handiei esker eguneratu zirenak aspalditik motelduta egon ondoren.

Hitzarmenak berritzeko zailtasun bereziak izan ditugu bi eremutan: herri-administrazioetan eta Gipuzkoako sektore feminizatuetan.

Arlo publikoan, zuzeneko enplegatuen eta azpikontraten kasuan, EAeko zein Nafarroako administrazioak horma bat izan dira lan baldintza hobekitzeko ahaleginean.

Gipuzkoan sektore maskulinizatuetakoa hitzarmen guztiak eguneratu dira; kasu batzuetan hobekuntza nabarmenak sartu ditugu urtetan geldirik egon diren hitzarmenetan (Eraikuntza eta Metala). Aitzitik, patronalak erabat blokeatu du sektore feminizatuetakoa hitzarmenen hobekuntza, hain zuzen lan baldintzarik okerrenak dituzten sektoreena (Garbikuntza, Ostalaritza, Merkataritza...). Sektoreotan mobilizazio dinamikak bultzatu eta aktibatzea saihestu ezineko erronka dugu.

ELAk sinatu dituen hitzarmenekin langileen baldintzak asko hobetu dira, akordioak eguneratzeaz gainera. Bereziki garrantzitsua izan da prekarietatearen aurkako neurriak negoziatu eta adostea (hitzarmena aplikatuko dela bermatzeko neurriak Gipuzkoako Eraikuntzako azpikontratetan, Garbikuntzako langileei Hoteletako edota Ostalaritzako hitzarmena aplikatzea, subrogazioa Metalean eta Arabako salgaien Garraioan...).

### d) Prekarietatearen kontrako gatazkak

ELAk eragindako gatazken gorakadak hitzarmenak eguneratzea ekarri du. Eta estaldura handitzeak aldarrikapen-eduki onak ekarri ditu ere, baita ELAk hitzarmena sinatu ez duen sektoreetan ere, oraindik ere hobetu zitezkeela uste baitzuen.

Gainera, prekarietatearen aurkako lorpen handiak izan ditugu hainbat lantokitan (Eulen-Euskalduna Jauregia, NH eta Barceló hoteletako langileak, Bilboko Azkuna Zentroa, Kirol kudeaketa, Navarpluma, CIE-Automotive edota Ferrovial Araia); hauetako batzuetan langile migranteak izan dira aitzindari. Hala ere, oraindik bidea falta zaigu prekarietatea sindikatuaren jardueraren erdigunean jartzea lortu arte, bereziki, prekarietatearen aurkako borroka sistematikoki landu dadin gure atal sindikalen egunerokoan.

### e) Enplegua hobeto defenditzeko taldea

Covid-19aren eraginez enpresetan egoera kritikoak gehitu zitezkeela ikusirik, 2020ko ekainean erabaki genuen lantalde bat eratzea soil-soilik EEKak eta Hartzekodunen Konkurtsoak lantzeko. Horrela zuzeneko laguntza eman nahi genien gure atal sindikalei, Federazioen lankidetzaz. Lantalde hau ekonomialariek, zerbitzu juridikoetako kideek eta Idazkaritza federaletako arduradunek osatzen dute.

Esperientzia hori abian jartzeak egoera horien aurrean koordinazioa eta laguntza teknikoa hobetzea ekarri du, eta, aldi berean, gure atal sindikalek enpresekiko negoziazioei segurtasun handiagoz aurre egitea eta enpresekiko erresistentzia-gaitasuna handitzea ahalbidetu du.

Gaur esan dezakegu Euskal Herrian, nahiz eta legedia hain kontrakoa izan, ez dela erraza kaleratzea edo enpresak ixtea. Kongresura iristen gara kaleratze prozesu batzuek amaituta ez daudelarik; beraz, ez gara oraindik behin betiko ondorioak ateratzeko moduan, baina oraingoz ikusi dugu lantalde hau eratu izanak posible egin duela egoera kritikoetan zuzendaritza tekniko eta politikoa hobeto koordinatzea, ezagutza sortzea eta epai berritzaileak lortzea; gainera, oso egoera zailtan dauden langileei segurtasuna ematen die.

#### **f) Negoziazio kolektibo feministaruntz**

Iritzi positiboa dugu ere genero diskriminazioaren kontrako borroka (Bizkaiko zahar-etxeetan edota Gipuzkoako auzitegi eta Komisarietako garbikuntzan), baina esan bezala, bide luzea dugu ibiltzeko genero arrakala gainditu arte, ez soilik diskriminazio-egoera materialak desagertu daitezela, baizik eta negoziazio kolektiboari ekiteko moduak ere emakumeen interesak aintzat har ditzan, berdintasunetik abiatuta. Lortu dugu soldata-arrakala benetako erreferentzia bilakatzea negoziazio kolektiboan, baina oraindik ere, salbuespenak salbuespen, ez ditugu eraman patronalak eta administrazioak modu orokortuan soldata-arrakalari aurre egiteko neurri eragingarriak hitzartzera.

Azken urteetan Genero-Ekitateko arloak rol aktiboa hartu du bere gain negoziazio kolektiboak emakumeen beharrez eta interesak aintzat izan ditzan; federazioekin lan egin du, eskatu duten laguntza emanez, genero irakurketa bermatzeko eta hitzarmenen edukien ekitatea hobetzeko.

2019tik hona berdintasun planei buruz izandako lege-aldaketekin (6/2019 eta 901/2020 Dekretuak) derrigorrezko bihurtu da berdintasun planak egitea 50etik gora lagun lan egiten duten enpresetan. Horrekin batera, bitarte horretan Berdintasun Planen izaera, negoziazioa, edukia eta prozesua zehaztu egin da; oro har aitortzen da negoziazio kolektiboko gaia direla.

Berdintasun Plan hauek bultzatu ditugu Genero arloan beste kide bat gehituta. Uste dugu taxuz landuz gero negoziazio kolektibo feminista sustatzeko tresna izango direla.

Azken urteetan idazkaritzako kide eta ordezkariekin hainbat prestakuntza-saio antolatu dugu gai honi buruz. Pandemiak prozesu hau geldiarazi zuen; horregatik, asko daukagu egiteko. Nahi baino plan gutxiago sinatu dugu, baina Berdintasun Planetan lortzen ez ditugun edukiak ere lan-hitzarmenetara eraman ditzakegu.

#### **g) Estatalizazioaren kontrako borroka**

Kongresu arteko aldi garrantzitsua izan du 2017ko urtarrilean sinatutako Lanbidearteko Akordioaren defentsak. 2018ko otsailean Kolektibitateetako patronalak (FEADRS) akordioaren aurka jo zuen, baina amore eman zuen greba deialdi bati esker. Hortik aurrera estatalizazioaren aurkako borroka Ostalaritzan kokatu da batez ere, CCOO, UGT eta FEADRSekin behin eta berriz estatuko hitzarmena ezarri nahi izan dietelako Hego Euskal Herriko langileei. Borroka ez da bukatu.



Estatalizazioaren salaketa horretan, ELAk, CIGekin (Galiziako gehiengo duen sindikatua) eta Kataluniako Intersindikalarekin batera, azken hiru lan erreformak bertan behera uzteko eskatu du. Gure aliantza Espainiako Gobernuak lan-erreforma bezalako gaietan ekintzarik ez izateari buruzko irakurketa kritiko batetik abiatzen da, eta elkarrizketa soziala deiturikoa arbuiatzen du, beharrezko aldaketak ez egiteko koartada gisa. Era berean, kaleratze kolektiboaren egungo erregulazioa eta negoziazio kolektiboaren egitura indargabetzeko premia azpimarratu dugu, gure herrialdeetan Estatuko hitzarmenak ezartzea ahalbidetzen baitu, prekarietatea zabaltzeko bide gisa. ELAk ez du bat egin LABek UGT eta CCOO sindikatuei EREen aurkako ekintza bateratua egiteko egin zien deiarekin; izan ere, sindikatu horiek EREak onartzen eta estatalizazioaren alde egiten duten jarrerak ezinezko egiten du, gure ustez, lankidetzari hori.

Horrenbestez, Madrilen ordezkariak duten hiru nazioetako alderdiekin bilerak izan ditugu, galdatzeko presio politikoa eragin dezatela eta gai hauei lehentasuna eman. Madrilen elkarrekin bilkura egin genuen Lan Ministerioaren aurrean (Yolanda Diaz ministroak bilera ukatu egin zigun), eta kanpainak hasi ditugu erreformak indargabetzea eskatzeko, adibidez martxoaren 25eko manifestazioa; gurean "Ez gaitzazue Madrilen saldu" lelopean Kongresuan ordezkariak duten euskal alderdiak zuzenean interpelatu zituen.

#### **4. Trantsizio sozial, ekologiko, demokratiko eta feministarako bidean**

ELAk laurteko honetan hainbat ekinbide abiatu du politika publikoen goitik beherako aldaketa aldarrikatzeko eta aipatutako trantsizio horietan aurrera egiteko; horietako asko, sindikatu eta eragile sozialak biltzen dituen Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartaren bidez. Borroka honetan dugun helburua ondo laburbiltzen du Eric Toussaint, Zor Ilegitimoen Aboliziorako Komiteko (CADTM) buruaren esaldiak: "Ez gaude hemen egingarri dena esaten digutena onartzeko, baizik eta egoerak eskatzen dituen erantzunak emateko eta beharrezkoa dena egingarri izan dadin mobilizazioa bultzatzeko".

##### **a) Elkargune sindikal eta sozial baten aukerak egiaztatu ditugu**

ELAren ustez Euskal Herriko Eskubide Sozialen Karta aliantza estrategikoa da, bere pentsamolde eta ekintza duena, eredu guztiz alternatibo baten alde gauden sindikatu eta gizarte-erakundearen artean. Laurteko honetako ekinbideen artean honakoak nabarmenduko ditugu:

- 2018ko ekainaren 2an Alternatiben Herria ekimenaren edizio berri bat egin genuen, oraingoan Iruñean. Deialdi honek arrakasta handia izan zuen, eta sare sozial berriak sortzeko balio izan zuen.
- Urte horretan bertan Pobreziaren eta Gizarte Bazterkeriaren aurkako Herri Ekimen Legegile bat erregistratu genuen Eusko Legebiltzarrean eta Nafarroan. Ekimen horrek gizarte-prestazioak nabarmen hobetzea eta alokairu sozialeko etxebizitza bat eskuratzeko aukera bermatzea eskatzen zuen. Nafarroako "aldaketaren Gobernu" izenekoak ez zigun sinadurak biltzeko prozesuari ekiterik ere utzi, gure eskaerak onartzeak gastu publikoa handitzea ekarriko zuela argudiatuz (hori agerikoa, logikoa eta beharrezkoa da), eta, horrela, demokraziaren aurkako jarrera eta gizarte-zaurgarritasun handieneko egoeren aurrean sentiberatasun falta handia erakutsi zituen. Bestalde,



Eusko Legebiltzarrak ez zituen aintzat hartu eskaerak onartzen zituzten 51.000 sinadurak, eta EAJren, PSE-EEren eta PPren botoekin, atzera bota zuen eskaera tramitera onartzea. Oso modu positiboan baloratu behar dugu ELAk egindako sozializazio-lana eta sinadura-bilketa (35.000 baino gehiago). Datozen urteetan jarraitu beharreko bidea da, batez ere Eusko Jaurlaritzak DSBEan murrizketa berriak iragarri dituen honetan, eta Nafarroan aurreko legegintzaldian onartutako Legea indarrean dagoen honetan, Errenta Bermatuan aplikatzen ari ziren murrizketak finkatzen baititu.

- Kartak, Euskal Herriko pentsiodunen mugimenduarekin batera, 2020ko urtarrilaren 30eko Greba Orokorra deitu zuen (gai hau txosten honetako hurrengo puntuan garrantuko da).
- Gainera, Kartak hainbat ekitaldi eta mobilizazio antolatu du Gasteizko eta Iruñeko gobernuen aurrekontuak arbuizatzeko eta kontu sozial eta parte-hartzaileak eskatzeko.

Covid-19aren pandemiak eragotzi egin zuen dinamika mobilizatzaileari nahi bezalako jarraipena ematea, hori baita politikak modu estrukturalen aldatu ahal izateko aukera bakarra. Greba orokor horren ondoren, Gutunak Hego Euskal Herriko lau hiriburuetako bakoitzean biltzen diren espazioak sortu zituen, gizarte-mugimenduei parte hartzeko benetako aukerak emateko, horietako asko tokikoak izanik. Halaber, Gutuna birkokatzeko prozesua abian jarri da, eta 2022ko lehen lauhilekoan amaitzea aurreikusi da.

## **b) Ekintza sozialaren aldeko apustua**

Kongresu arteko aldi honetan, Ekintza Sozialeko arloa jarri dugu abian. ELAren gizarte-eredua aldatzearen aldeko apustuak alor hori indartzera eraman gintuen, bi zentzutan: batetik, ELAk gizarte-dinamiketan presentzia handiagoa eta hobe izatea bermatzea (plataforma ekologistak, dinamika feministak, gizarte-erakundeak...), eta, bestetik, sindikatuaren agendan arlo horretako gogoetak, kanpainak edo ekimenak hobeto txertatzea.

Lan hori egiteko lantalde berri bat sortu genuen, baina lurralde bakoitzeko arduradun bana izan dugunerako 2021 urtea hasita zegoen; beraz, eremu honetako ekintzak ezin izan du egin nahi genuen ibilbidea. Haatik, uste dugu ikusi ahal izan direla egindako urratsak, hiru kontutan:

- Gai sozialak sindikatu barnean hobeto lantzen lagundu. Aipagarria da aurtengo udaberrian fiskalitateari buruzko kanpainan egindako lana. Ekintza Sozialeko kideak ezinbestekoak izan dira sozializazio lanean.
- Parte hartze handiago eta hobe izatea gune komunetan, esaterako Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartan. Dinamika sozialak, bestalde, oso tokiko kutsua du. Ekintza Sozialeko taldearekin eremu horietako gure partaidetza asko hobetu da.
- Militantzia sozialaren bultzada. Datozen urteetarako lan-ildo nagusia. Oraindik ez dugu alderdi hau lantzeko aski denborarik izan, baina uste dugu gai honetan urrats berriak egiteko moduan garela, XV. Kongresu honetako ponentziak dioen moduan.



### c) Martxoaren 8ko greba feministak

Genero sailaren lan garrantzitsu bat mugimendu feministarekiko lankidetzaz elikatzea da. Urte emankorrak izan dira alde horretatik, eta esan daiteke feminismoa denboraren ikur bat dela gure herrian ere. Mugimendu feministarekin batera ere lan egin dugu martxoaren 8ko eta azaroaren 25eko deialdien inguruan

ELA Euskal Herriko Emakumeen Mundu Martxako kide da. Azken urteotan parte hartu izan dugu, besteak beste, Feministon Herrian, nazioarteko topaketan eta 5. Nazioarteko Ekintzan. Halaber, ELAko emakumeek parte hartze aktiboa izan zuten Durangon 2019ko azaroan izandako "Salda Badago" izeneko Jardunaldi Feministetan.

ELAn Martxoaren 8a aspalditik izan da egun seinalatua, baina sindikatuko emakumeek nekez ahaztuko dute 2018 eta 2019 urteetan bizitakoa. Euskal Herriko Mugimendu Feministak greba deitu zuen, eta ELAk deialdian zein antolakuntzan parte hartu zuen, 2018an enpleguaren eremuan lau orduko lanuztea eta hurrengo urtean greba orokorra deituz. Argi dago bi egun horiek historikoak izan zirela. Greba haiek enpleguaren eremutik haratago zihoazen, eta oso agerian geratu zen emakumeen eguneroko lan ikusezinik gabe sistema hau ezdeusa dela.

Greba biak, gainera, berritzaileak izan ziren sindikatuarentzat; alde batetik, deitu zituena nazioarteko mugimendu feminista izan zelako eta, bestetik, enplegutik hara zihoazelako: greba deitu zen lan erreproduktiboan, eta zaintzan jarri zen fokua.

Greba hauen prestakuntzan barne-ikasketa ugari egin genuen. Batzar asko eta asko egin genuen deialdia azaltzeko, lan berezia eginez emakumeekin. Eskualde gehienetan emakumeak ahalduzko saioak antolatu genituen, eta greba feministarekiko lotura zuzena egin genuen. Greba kontzeptua hedatu egin genuen ohiko lan formalaren mugetatik harago, edonola ere enpleguko grebaren garrantzia nabarmenduz eta horretarako lan aktiboa eginez.

Izan ere, ELAk greba feministei egin zien ekarpenik behinena izan zen emakumeek prekaritatearen pairatzen duten eremuetatik sortutakoa, azken urteetan sektore horietan antolatutako grebak ere greba feministak baitira, noski. Martxoaren 8ko deialdiek eguneroko borroka horiei marko orokor bat eman zieten.

### d) 2020ko urtarrilaren 30eko greba orokorra

Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak (zeinetako kide den ELA) 2020ko urtarrilaren 30ean Greba orokorra deitu zuen pentsio publikoen, kalitatezko enpleguaren eta eskubide sozial berrien aitortzaren alde. Grebak jarraipen handia izan zuen; hala erakutsi zuten 150.000etik gora lagun bildu zituzten manifestazioek, eta hori soilik goizeko mobilizazioetan.

Beste aldi batzuetan ez bezala, zeintzuetan greba orokorrarekin murrizketak salatu izan diren, urtarrilaren 30eko deialdia ofensibakoa zen. Egun historikoa izan zen, greba egin genuenon eta kalera atera ziren hamarna milaka pentsiodunen oroimenean geratuko dena; mugimendu feministak, ekologistak, LGTB+ eta antirrazistak ere parte hartze handia izan zuten.

Borroka eremu zabal horren egituratzea izan zen egun hartako albiste handienetako bat. Eta meritu handia du, batzuek saiatu baitziren grebaren deitzaileen argudioei zilegitasuna

ukatzen eta haiek ezkututzen, hedabideetan desoreka nabarmena zelarik gobernuen eta patronalaren bozeramaileen mesedetan.

Grebak lau interpelazio egin zituen:

- Lehena, patronalari. Confebask eta CENi proposatu zitzairen gai konkretuko Lanbi-dearteko Akordio bat: 1.200 euroko gutxieneko soldata; gutxienez 20 eta gehienez 35 orduko lan astea; enplegu azpikontratatuaren subrogazioa, eta soldata arrakalaren amaiera.
- Bigarrena, EAEko eta Nafarroako erakundeei. Urkulluk, demokraziaren ulerkera bitxia izanik, greba deitzaileok hartu ere ez gintuen egin gure arrazoiak entzuteko. Esan zuen bere gobernuak aldarriei buruzko eskumenik ez duela; baina hau gezurra da. Grebak eztabaidaren erdigunean kokatu zuen sektore publikoan dagoen aldi baterako enplegua desagerraraztea; administrazioen azpikontratetako langileen eskubideak; pentsioak 1.080 euroraino osatzea; pobrezia eta bazterkeria sozialaren aurkako Herri Ekimen Legegilearen edukiak, edota menpekotasun sistema unibertsal, publiko eta doakoa izateko eskubidea: hauetan guztietan Gasteizko eta Iruñeko gobernuak esku-mena badute.
- Hirugarrena, Madrilgo gobernuari. Lehenik, Euskal Herrian lan hitzarmenak negoziatzeko eskubidea galdatzen genuen, eta Zapatero eta Rajoyren gobernuak ezarritako lan- eta pentsio- erreformak indargabetzea. Bestetik, eskari bat alde batera utz zezaten patronalari beto eskubidea ematen dion elkarrizketa soziala (hala gertatu zen Gutxieneko Soldatari buruzko akordio negargarrian, non elkarrizketa sozialeko mahaiak iguera txikiagoa proposatu zuen gero PSOE-UP koalizioak ezarriko zuena baino).
- Laugarrena, berriz, ezkerreko alderdiei. Ezker politikoa behar dugu, aurre egingo diena politika neoliberaleri, aurrekontu- eta zerga-politikei, eta politika alternatiboak proposatuko dituen, pedagogia egingo duena eta horren guztiaren aldeko masa soziala eratuko duena. Salatu beharra daukagu EAEn Podemosek eta Nafarroan EH Bilduk sinatutako aurrekontu-akordioak hain justu kontrako norabidean joan zirela.

Nafarroan EH Bilduko arduradun batzuek esan zuten grebako aldarri-taulako edukiak Chiviteren gobernuarekiko akordioan jaso zirela; hau ere ez da egia. Propaganda egiteko eta beren burua justifikatzeko beste xederik ez duten honelako adierazpenik ez dugu onartzen.

## **5. Prozesu nazionalari buruzko diagnostiko errealista eta partekatuaren beharra**

Kongresu arteko aldiak, garrantzi politiko eta ekonomiko txikiko transferentzia batzuetatik harago (espetxeena izan ezik), estatuak euskal autogobernua higitzen jarraitu du bere logika historikoan; gainera, eraso politiko eta judizial pairatu ditugu (euskararen kasuan bezala), eta, pandemiaren testuinguruan jada, de facto inpugnatua izan da, besteak beste, gure osasun publikoko politika definitzeko gaitasuna.

Estatuan nazio aniztasuna onartzeari dagokionez, benetan uste dugu iraganean baino okerrago gaudela. Kontua ez da bakarrik esparru juridikoa aldatzeko ahalegina egin denean (Eusko Legebiltzarraren estatutu politiko berriaren proposamena edo Kataluniako Estatutua, esaterako), estatuko alderdi eta aparatu nagusien erantzuna ezezkoa izan dela. Izan



ere, gaur egun, Espainiako sistema politikoa askoz ere intransigente eta errepresiboagoa da estatuan dauden aldarrikapen nazionalen aurka.

Izan ere, argi eta garbi proposatzen da esparru autonomikoak ezabatzea (eta, jakina, hitzarmena eta kontzertu ekonomikoa), erakunde independentistak legez kanpo uzteko mehatxua egiten da erakunde independentista izate hutsagatik, botere judiziala erabiltzen da estatuen batasunaren ikuskera bakarra ezartzeko. Horregatik guztiagatik, Katalunian gertatutakoaz, pandemiaren kudeaketa zentralizatzaileaz edo estatutuaren erreformari buruzko eztabaidaz ondorioak ateratzea ezinbestekoa dela uste dugu. Estatuan gobernatzen duen ezker oso urrun dago estatuan espazio publiko eta mediatikoa nagusitzen duten eskuindarren diskurtsoaren kontrapuntu izatetik.

Ez dugu hemen errepikatuko ponentziaren kapitulu politikoan egiten den balantzea. Baina aipatu behar dugu ELA ez zela interpelatuta sentitu bere garaian EAJk eta eh Bilduk sinatutako autogobernurako oinarrien akordioagatik (Sortu eta EH bilduko arduradun batzuek "historikotzat" jo zuten). EAJk legealdi batzuk daramatza estatutuaren balizko erreforma bat distrakzio politikorako tresna bihurtzen, sine die luzatzen, bere nahierara, eztabaida desnaturalizatzeke eta, batez ere, Estatuarekiko edozein liskar saihesteko. 2012an Urkulluk kargua hartu zuenean, bere hiru lehentasunetako bat legealdi hartan Estatutua berritzea zela azpimarratu zuen. Baina hasieratik argi utzi zuen horretarako akordioan gutxienez alderdi konstituzionalista batek parte hartu behar zuela, eta prozesua Estatuarekin adostu behar zela. Zazpi urte igaro eta bi legealdiz agortu direnean, puntu berean jarraitzen dugu, ezin bestela izan. Oso larria da euskal ezkerrek errealitate horri buruzko behin betiko ondorioak ateratzeko duen ezintasuna.

Badakigu oso gutxi egin ahal izan dugula agenda honetan. Baina ulertu dugu edozein eztabaida subiranista egiteko ezinbesteko baldintza fikziorik gabeko diagnostiko batetik abiatzea dela, praxi politikoaren objektibotasun handienetik eta aktoreen benetako estrategiak ulertuta. Eta denbora ez galtzea gazteluak airean marrazten, besteak beste, agintean dagoen nazionalismoari eragile "subiranista" gisa homologatzeko aukera ematen diotenak. Hori horrela den bitartean, nekez imajinatuko ditugu bestelako estrategia subiranistak.

ELAren eta LABen 2017ko iraileko Adierazpen Politiko bateratuaren bidez, gutxieneko batzuen alde lan egiteko eta subiranotasunaren aldeko borrokan gizarte-eredua balioesteko beharra azpimarratu nahi izan genuen. Gizarte mobilizatua, egituratua, bizia, justiziaren eta berdintasunaren alde borrokatzen dena, eta politika ausarta, ondorioztatuko duena Euskal Herria ez dela sorgor mantendu behar Espainiak ordezkatzen duen inboluzio sozial eta politikoaren aurrean. Dokumentuak Espainiako Estatuaren inboluzioa salatzen zuen hainbat arlotan: lan eta gizarte eskubideen murrizketa, demokraziaren aurkako eraso, protesta sozialaren errepresioa, eskumenean birzentralizazioa, etab.

Dokumentuak agenda soziala lehenestea eskatzen zien alderdiei, agenda soberanistaren oinarri gisa. Politikak gizartearen gehiengoaren interesen zerbitzura jartzen badira, gehiengo bat lortuko da, eta gehiengo horrek ikusiko du hobe dela erabakiak hemen hartzea, horrek mesede egiten dielako, esaten genuen agirian. Apustu egiten genuen, halaber, ezkerreko aliantzei lehentasuna emateko.

Azken puntu hau gauzatzerakoan ELAren eta LABen arteko desadostasunak eragotzi egin du agiriaren mamia ELAk nahiko zukeen moduan garatzea. Bi sindikatuek modu ezberdinean ulertzen dute interpelazioa, batik bat EH Bilduri egin beharrekoa, burujabetza prozesuak eremu instituzionalean ere ezkerreko praxia izan dezan; horrek galarazi du dokumen-

tuari irismen handiagoa ematea. Edonola ere, ELAk agiri hura bere egin du eta defenditu egingo du haren edukia, goitik behera.

## **6. Ohiz kanpoko Kongresua: Idazkari Nagusiaren erreleboa**

2019ko apirilaren 5ean ELAk Donostian ohiz kanpoko kongresua egin zuen sindikatuaren organo gorenak berretsi zezan idazkaritza nagusiaren aldaketa eta Batzorde Eragile berria. 2008tik aurrera idazkari nagusi zen Adolfo Muñoz "Txiki" k bere ardura utzi zuen gure araudiak finkatutako adinera iritsi zelarik.

ELAk Kongresua baliatu zuen bere esker ona adierazteko eta aitortzeko hamaika urtez sindikatuaren buru izan zen sindikalistaren konpromiso sendoa eta militantzia ibilbide luzea. Bestalde, Txiki izan da ELAren 1976ko III. Kongresuan izan zen azken koadro aktiboa.

Kongresuak gehiengo handiz hautatu zuen Batzorde Eragile berria, Mitxel Lakuntza idazkari nagusi zelarik eta Maialen Aranburu Ekintza Sozialeko arduradun gisa sartzen zelarik. Beste behin ere kongresua konpromiso militantea berritu eta gure kohesioa indartzeko momentu berezia izan zen.

Ohiz kanpoko ekitaldi honetan ez zen ponentziarik eztabaidatu, 2017an izan zen kongresuan onartutakoa guztiz indarrean zegoela iritzita, baina hiru ebazpen bozkatu ziren, prekarie-tateari, aldaketa sozialari eta autogobernuari buruzkoak. Hiru ebazpenak aho batez onartu ziren.

## **7. Antolakuntza lana oraindik ere funtsezkoa da**

### **a) Kongresu arteko aldi batetik haratago doan lana**

Sarri esan izan dugu gure erakundea dela lanik sakonen eta eragingarriena egin dezakegun eremua, abagune sozial eta politikoak alde batera utzita. Gure antolakuntza-eredu eta -lanak eragingo du lan- eta gizarte-baldintzak hobetzeko aukera handiagoa edo txikiagoa izatea. Zoritxarrez, 2020ko salbuespen egoerak eragotzi egin digu hasitako antolakuntza lanarekin espero genuen bezala jarraitzea. Alabaina, zertxobait egin ahal izan dugu.

Lehenik egituraren funtzionamenduan jarriko dugu arreta, izan ere, jakina baita gure eredu sindikalean eginkizun garrantzitsua duela. Lan egiteko modu berriak finkatu ditugu. 2008ko krisiak eta ondoren etorri ziren lan eta negoziazio kolektiboko erreformek gure barne-funtzionamendua berrikustera behartu gintuzten. Antolakuntza-dinamika berriak jarri genituen martxan, zeintzuk ebaluatu behar genituen denbora jakin baten buruan, eta esan dezakegu emaitza oso positiboa dela. Zehazki, federazioen zuzendaritza eskualdeetan indartu izanak, eskualde arduradunekin lan koordinatua eginez eta lidergoa partekatuz, erabakigarria izan da enpresa eta sektoreen sindikalizazioa bultzatzeko.

Ondo antolatutako lantaldeak eratu ditugu, eta hauek kolektiboki heltzeko aukera ematen digute enpresa zein sektoreetako lan gero eta konplexuagoari. Errealitate honek, bestalde, aukera eman digu ETEetan dinamika sindikalari eusteko; hauetan gure presentzia erreala da.



Asko daukagu egiteko; askoz urrunago iritsi nahiko genuke, sakontasun handiagoz, baina hainbat sektoretako negoziazio kolektiboaren dinamikak, izaten jarraitzen ditugun afiliatu-altak eta hauteskunde sindikaletako emaitzek adierazten dute gure presentzia sektoretan eta enpresa handi zein txikietan benetakoa dela, eta gure eredu sindikala, sendoa.

Nolanahi ere, ezin dugu aipatu gabe utzi gure erronka sindikalei aurre egiteko zenbateko ahalegina garatzen ari garen. Gure lana hobeto ordenatu behar dugu, eta argi finkatu lehen-tasunekin batera hauetatik eratorritako eginbeharrak. Honen ardura lehenik zuzendaritzari dagokio.

Belaunaldi- eta genero-berritzea, hasteko egiturarena berarena, gure antolakuntza ereduaren muineko osagai bihurtu da. Zalantzarik gabe, apustuaren arrakasta posible da soilik erronka geure gain modu kolektiboan hartu dugulako eta horrek dakarren ahalegina egiteko prest gaudelako. Urteen poderioz, poz handiz ikusten dugu sindikatua errealitate eta erronka berriei egokitzeko apustu honen garrantzia.

Halaber, aurrekoari lotuta, arduradun berriak egituran sartzeko Harrera prozesua finkatu dugu. Lan-plan hau beharrezkoa da eta ontzat ematen du jendeak; hobetzen ari gara bertan parte hartzen duten pertsonen ekarpen eta iritziekin. Genero ekitatearen ikuspuntutik prozesu honetan zaindu beharrezkoa da lanpostuetako jarduerari buruzko ezagutzaren transmisioak dakarren genero-inpaktua.

Gogora dakarkigu aurreko Kongresu konfederaleko Ponentziaren pasarte bat: orduan esan genuen erronkak kongresu arteko aldi bat baino gehiago luzatuko zirela, eta erantsi antolakuntza lana beti dela, definizioz, amaitu gabeko eginkizun bat, osagai nagusiei dagokienez.

Orduan genioen enpresa, lantoki eta sektoreen sindikalizazioa erronka izugarri handi eta konplikatu dela. Antolakuntza arloan XIV. Kongresu konfederalean planteatu genituen beste erronkei buruz ere antzeko zerbait esan daiteke: parte hartzeari buruz jautzia egin beharra, batik bat emakume langileen artean, lan munduaren heterogeneotasun hazkorrari erantzun, antolakundea genero ikuspuntutik birpentsatu eta gure oinarri militantea zabaltzearen premia.

Horretan ari gara, tentsioari eutsiz eta aurrera eginez. Baina egia da ere intentsitate eta abiadura areagotu nahi dugula, gaur iritsi ezinik gabiltzan horretara heldu. Prozesu hauek oso konplexuak dira, hobeto definitu eta landu behar ditugu, eta horretarako plangintza gehiago eta hobeto egin behar dugu, eta hori lotu ELAn eratzen ari garen Kudeaketa Sistemaren beharrari.

## **b) Plangintzan aurrera egin**

Aurreko kongresuan agindu genuen arloetan modu planifikatuan lan egiteko baldintzak sortuko genituela. Gure lan planifikatuan aurrera egin. Kontua da gure esku dagoena hobeto egitea, helburuen arabera lan egitea, beste era batean lan egitea, eragingarriago izan eta hobeto sindikalizatzeke.

Horretarako azken lau urteetan kudeaketa sistema bat sortu eta garatu dugu, zuzendaritzatik hasita. Izan ere, plangintzari dagokionez benetako urratsak egingo baditugu ezinbestekoa da Nazio Batzordetik hastea. Horregatik, lana batik bat Batzorde Eragilean kokatu da, eta ez hainbeste Nazio Batzordean zein zenbait arlo konfederaletan.

Kudeaketa sistema bat martxan jartzeko hiru fase gainditu behar dira: ereduaren formulazioa, sistemaren eraikuntza eta, azkenik, martxan jartzea. ELAn azken urteetan hiru fase horiek landu ditugu.

Horrenbestez, esan dezakegu arlo honen eginkizuna izan dela sindikatuari egokitutako kudeaketa sistema baten oinarriak ezartzea. Lan hau oraindik ez dugu behar bezala azaldu eta garatu sindikatuko maila ezberdinetan. XV. Kongresu honetako ponentziak dio antolakuntza eremuan datozen lau urteetako erronka nagusietako bat izango dela kudeaketa sistema sindikatu guztira hedatzea.

### **c) Eraikitzen ari den sindikatu feminista**

Azken Kongresuan sindikatuak hasitako genero-ekitaterako antolakuntza prozesua mugarri bat izan zen. Sindikatuan diagnostikoaren ondorio nagusiak partekatu genituen eta bide horretan aurrera egiteko konpromiso irmoa hartu genuen geure gain.

Diagnostiko hura abiapuntutzat hartuta, ibilbide horretako gure eginkizun nagusia azken lau urteetan izan da Genero-Ekitaterako Plan Estrategikoa idatzi eta adostea.

Lan hau egin dugu parte hartze prozesu berritzaile baten bidez, zeinetan parte hartu duen sindikatuko arlo ezberdinetako jendeak, zuzendaritzatik hasi eta ordezkari sindikaletaraino.

Lan-saio ugari izan dira, parte hartze zabalarekin, hainbat ardatzen arabera (eskubideak, ikasketa, gizarte eredu...). Ardatz hauetan sindikatuak datozen lau urteetan aintzat hartuko dituen estrategia eta lan-ildoak definitu dira (negoiazio kolektiboa, hauteskunde sindikalak, zerbitzu juridikoak, prestakuntza, ekintza soziala...). Genero-ekitateko arloaren eginkizuna izan da hau guztia antolatu eta bultzatzea eta, noski, parte hartze aktiboa izatea.

Bestalde, azken urteetan ELAk bere agendan bi data nagusi jaso ditu: azaroaren 25a eta ekainaren 28a. Egun horietan barne-lana egiten dugu bortizkeria matxista eta LGTBIQ+ pertsonen eskubideen defentsaren inguruan. Urtero era ezberdinetako ekitaldiak antolatu ditugu, auzi hauei buruzko kontzientzia hedatu eta diskurtsoa garatuz.

### **d) Erakunde gero eta euskaldunagoa**

Gure Plan estrategikoaren aplikazioari esker euskararen erabilera sindikatuan lau puntu igo da, erabiltzen dugun adierazle-panelaren arabera.

Euskaraldian parte hartu dugu; bere baliorik behinena izan da euskararen egoera aztertu dela sindikatuko militante askorekin, eta sindikatuak euskaldunen hizkuntz-eskubideekiko duen konpromisoa berretsi dugula; horrela batik bat azken Kongresutik aurrera hasitako bide berria indartu da. Hizkuntz-ohiturak aldatu dira, baina euskararen erabilera ez da oraindik iritsi ELAko jendeak duen ezagutza mailaren parera.

Euskarazko ikastaroak asko gehitu dira (kopuru erlatiboetan, pandemiak prestakuntzari zeharo erasan baitio), baina ez ditugu egiten gure militante eta ordezkari euskaldunen kopuruaren baitan antolatu genitzakeen euskarazko ikastaro guztiak.

Zerbitzu Juridikoetan duela gutxi euskararen normalkuntza Planari ekin diogu. Honen xedea da aurrerantzean lan arloan euskaraz egindako demandak gehitzea; Gipuzkoako adminis-



trazioarekiko probaldi bat hasi gara egiten. Hurrengo Kongresuan neurtu ahal izango ditugu plan honen emaitzak.

Azkenik, pandemia aurretik sindikatuko militante euskaltzaleen sarea osatzeko saioa egin genuen; lehen bilera bat izan zen, baina pandemiak behartu gintuen kolektibo honentzako aurreikusita zegoen plana baztertzera; datozen lau urteetan jarraipena eman behar diogu.

## **8. Hazkundera hauteskundeetan eta afiliazioan**

Kongresu bakoitzak aldioro jartzen digun helburua izan ohi da afiliazio- eta ordezkari-tza-oinarriaren hazkundera. Esan dezakegu lau urteotan lortu dugula, eta ELA Euskal Herriko sindikatu nagusi gisa finkatu dela; 2019ko apirilean geure marka historikoa hautsi genuen, ordezkari-tzaren %36,85arekin.

Nota ona izan dugu aurreko epealdi trinkoan, eta gure ordezkari-tza orokorra hobetu egin da. Sabai historikoa gainditu genuen, EAEn %41,65arekin, eta Nafarroan %23,23arekin. ELA da lehen sindikatua 12 eskualdeetatik 11tan, eta %40tik gora dugu 11 horietatik 8tan. Gure ordezkari-tza aski homogenea da lurraldeetan zehar, badiren arren hobetu beharreko eremuak.

Nabarmenezkoa da arlo honetan lortu dugunak zenbateko meritua duen. EAEn hautatzen diren 10 ordezkarietatik 4 ELAkoak izatea da sindikatu batek izan dezakeen aitortzarik handiena; zilegitasun handia ematen digu eta oinarri zabala langile-klasearen baldintzak hobetzeko lana antolatzeko. Lorpen hau posible da soilik militante guztien inplikazio eta lan saiatuari esker.

Nafarroan dugun ezarpenari dagokionez, egindako lanaren ondorioz lurralde honetako lehen sindikatu izateko ehun ordezkari besterik ez dira geratzen. Gure proiektuak afiliazio-babes gero eta handiagoa du, eta hauteskunde sindikaletan laurteko honetan ere gure marka historikoa hautsi dugu.

Afiliazioan, kongresu arteko aldi honetan aurreko urteetan izandako jaitziera gelditzea lortu dugu, baita haztea ere: 2017ko martxoan baino 1.965 afiliatu gehiago gara (98.960 izate-tik 100.925ra, 2021eko abuztuan). Bereziki nabarmendu behar da emakumeen afiliazioa. 2017ko martxoan baino 3.272 andre gehiago gara; honek esan nahi du emakumeen afiliazio hazkundera saldo garbi orokorra baino handiagoa dela. Honez gero afiliatuen %46,10 emaku-meak dira.

## **9. Beste arlo eta ardura konfederalerako lana**

### **a) Azterketa Bulegoa: analisi eta proposamenak ikuspuntu kritikotik**

Politika publikoen eta errealitate sozialaren analisi eta balioespina ikuspuntu kritiko eta al-ternatibotik egitea gure kontrabotereko proiektuarekin bat dator. Ezinbestekoa da argudioak eta pentsamendua sortzea konfrontazio ideologikorako eta aldaketa sozialak nahiz politika al-ternatiboak bilatzen dituzten estrategiak definitzeko. Politika publikoen eta ekologikoen analisia da Azterketa Bulegoak eta Ingurumen Arloak egiten duten lanaren zati bat.



Joandako lau urteotan ELAren Azterketa Bulegoa erreferentzia gisa finkatu egin da, sindikatu barnean zein kanpoan. Bi agirik adierazten dute hori: "Bidezko irteera baten alde"; krisiari heltzeko proposamen konkretuekin, eta Europar Funtsen balioespena, zeinetan zorrotz analizatzen dugun Europar diru horri buruz iritsitako akordioak, jendea nahastea beste xederik ez zuten mezu interesatuak alde batera utzita. Hasieratik argi esan genuen baldintzatuta izango zirela eta enpresa multinazionalak dirutza bideratzeko zeudela pentsatuta.

Azterketa Bulegoak txosten garrantzitsuak egin ditu, besteak beste:

- Fiskalitateari buruzkoak. Erreferentziazko txostenak dira; eurretan taxuz aztertzen da Ekonomia-Iltun eta -Hitzarmena nola baliatzen diren kapitalaren interesen mesedetan; halaber, alternatiba argi eta egingarriak proposatzen dira. Norabide honetan ELAk 2021eko udaberrian kanpaina bat hasi zuen, mobilizazioak barne, Aldundiei eta Nafarroako Gobernuari zerga-politikan aldaketak galdatzeko, pandemiak areagotu zituen egiturazko beharrianak zirela eta.
- Eusko Jaurlaritzaren eta Nafarroako Gobernuaren Aurrekontuei buruzko txostenak. Urtero lan zehatza egin ohi dugu, gobernuen propagandari eta hedabide nagusien zorrotzasunik gabeko informazioari aurre egiteko baliagarria.
- Lortu dugu ostera ere Egoera Ekonomiko eta Sozialaren Azterketa hiru hilero argitaratzea, baita Azterketak argitalpena ere. Aldi berean hilero igortzen dugun Buletin digital bat egiten hasi gara, aurreko buletina baino askoz hobea.

Bulegoaren lana beste sindikatu eta gizarte-erakunde batzuekin batera parte hartzen dugun hainbat eremutara hedatu da; hauen artean bi nabarmen daitezke:

- Euskal Herriak Kapitalari Planto! ekimena, botere korporatiboari eta multinazionaliei aurre egiteko sortua, Kanada eta EB arteko merkataritza akordioaren (CETA) eta TTIParen kontrako 2017ko mobilizazioen ondoren, zeintzuetan milaka lagun irten ziren kalera Euskal Herrian. Duela gutxi talde honek lan bikaina argitaratu du, europar funtsei buruzko gidaliburua.
- Kutxabank Publikoa: Aipagarriak izan dira bankuek ezartzen dituzten komisioen aurkako kanpainak eta Banku Publikoari buruzko jardunaldiak.

## **b) Ingurumenarekiko konpromisoa, gero eta biziagoa**

Ingurumeneko Arloan urte oso beteak bizi izan ditugu. Jende asko bat dator klimaren krisiari aurre egiteko neurri gogor eta premiazkoak hartu behar direla, planetaren etorkizuna eta egun bertan dagoen bizi arriskuan baitago. Baina ardua duten erakundeek hartutako erabakiak oso urrun daude beharrian horren larritasunak eskatzen duenetik.

Krisi ekologikoak (klima, energia eta materialena) enpleguan eragin handia izango du; sektore batzuk uzkuritu eta lanpostuak galduko dituzte, eta beste batzuek, berriz, sortu, beti ere sustatzen badira. ELAk honen inguruko gogoeta lehenengoz 2013an egin zuen; ikerketa bat izan zen ikusteko ekonomiaren trantsizio ekologiko eta soziala nolakoa izan behar den. Ordutik hona gai hau jorratu izan dugu, gure hausnarketa eta proposamenak sindikatuko egiturari eta federazioei -batik bat Industria eta Eraikuntzakoari- helaraziz, baita liberatu berriei ematen zaien prestakuntzan ere. Halaber, gehien kontaminatzen duten enpresetan kanpainak egin ditugu eta formazioa eskaini diegu ordezkari.



ELAko Ingurumeneko Arloak sindikatuan eta gizartean kontzientzia pizten lagundu du, hainbat bidetatik; esaterako:

- Hileroko buletin digitala, aurreko buletina baino egokiagoa.
- Ingurugaiak bilduma kontsolidatu egin da; honek egungo sistemaren eraldaketa ekoszialerako ezinbesteko gaiak azaltzen ditu.
- Energia-Demokraziaren aldeko Sare Sindikalean (TUED) parte hartzea. Gune honetan mundu guztiko sindikatuak biltzen dira, eraldaketa ekoszial horrekiko ikusmolde koherentea dutenak.
- Lisboan 2018ko abenduan izan ziren Topaketa Ekosozialistetan parte hartu genuen; orduetik hona ez dute jarraipenik izan, pandemiaren ondorioz.

Honetaz gainera, arloak beste ekintza batzuk ere bultzatu ditu, besteak beste:

- Zaldibarko zaborteziaren kolapsoaren inguruan gertatu zena salatu dugu, baita horretara eraman zuen euskal erakundeen politika ere.
- Errausketa hedatzearen kontrako jarrera, eta elkartasuna Gipuzkoako Aldundiko bi arduradunekiko (Iñaki Errazkin eta Ainhoa Intxaurrendieta), izan ere, egungo Aldundiko agintariek eskarmentua emateko zigortu nahi izan baitzituzten.
- Alferreko azpiegituren aurkako kanpainak, esaterako AHTa.
- 2019ko otsaileko mobilizazioak, mundu mailan deitu zen Climate Strike (klima-greba) inguruan.
- ELAko 100 atal sindikalek beren enpresei zuzendutako eskaria berotegi-efektuko gasak murrizteko planak zehatz ditzaten. Enpresek entzungor egin zieten.

Txosten honetan gogoratu nahi dugu 2017 bukaeran Garoñako zentrala behin betiko ixtea erabaki zela. Albiste oso ona izan zen, urte askotan garatutako borroka sozialaren fruitu; honetan ere sindikatuak parte hartu izan du.

### c) Nazioarteko agenda eta elkartasuna

Sinesgaitza izan daitekeen arren, sindikalismoak XXI. mendean munduko herrialde gehienetan jazarpena pairatzen du. Areago, eskubide sindikalak gero eta sarriago urratzen dira eta sindikalista zein aktibistek jasaten duten errepresioa gogorragoa da. ELA Nazioarteko Konfederazio Sindikaleko (NKS, gaztelaniaz CSI) kide da; honek egindako salaketan aipatzen da sindikatuak erregistratzea galarazten duten herrialdeak 2020an 89 zirela, eta 2021ean 109. Langileen eskubideekiko errespetua analizatuta, 149 herrialdeetatik %87an greba eskubidea urratu da; %79an, negoziazio kolektiborako eskubidea, eta %74ak langileei ukatu egiten diete sindikatu baten kide izateko aukera.

Pandemiak guztiz baldintzatu du Nazioarteko Arloaren jarduera. Nazioarteko kongresuek, bertatik bertara egiten diren bilerek eta bisita programatuek jarraipena modu telematikoan izan dute, baina ez oso-osorik. Pandemia aurreko aldiaren azken kongresuetako lan ildoetan sakontzen jarraitu genuen. Lehenik, aurrez genituen aldeko harremanak sendotuz eta gure

proiektuaren oinarriak buruz -esaterako, sindikalismo borrokalaria edo auzi nazionala- bat gatozen erakundeekin harreman berriak hasiz. Bigarrenik, ELAk kide deneko nazioarteko erakundeen dinamikan parte hartuz. Azkenik, lankidetzak proiektuei babes emanaz.

Mundu mailan honako kongresuetan izan gara: NKSrena (Kopenhage, 2018); CSA Ameriketako Konfederazio Sindikalarena (CSA, telematikoa, 2021); Genevan Lanaren Nazioarteko Erakundearen (LANE) urteroko Konferentzian parte hartu dugu 2018 eta 2019an. 2020an konferentzia bertan behera geratu zen, eta 2021ean birtuala izan da. Tarte honetan partaide aktibo izan gara ere Munduko Foro Sozialen dinamikan eta Trade Union Energy Democracy-ren (TUED) jardueretan.

Europar, CES Europako Sindikatuen Konfederazioko Kongresuan izan ginen (Viena, 2019). CESeen Batzorde Eragilearen bileretan parte hartu dugu, baita zenbait lantaldeetan ere: Merkataritza eta Globalizazioa, Garapen Iraunkorra eta Negoziazio Kolektiboa, eta Emakumeen Komitea. 2020an Europako Komite Ekonomiko eta Soziala berritu zenean nazioarteko arloan kide berri bat sartu dugu; honek Azterketa Bulegoan ere lan egingo du, eta bi arlo hauen arteko koordinazioa bideratuko du. Parte hartu genuen Alter Summit-en, TUNEn (Trade Union Network Europe), Saharar Herriarekiko babes eta elkartasun Konferentzia Europarraren (EUCOCO) urteroko bileretan, Palestinan Justiziaren aldeko ETUN sarean (European Trade Union Initiative for Justice in Palestine), besteak beste.

Garapenaren bidez bultzatzen ditugun nazioarteko lankidetzak proiektuak ere bereziki aipatu nahi ditugu. Egitasmoak zuzenean kudeatzen ditu Garapenak, edo beste erakunde batzuekin batera (Belgikako CSC, Quebeceko CSN eta "Alternatives"). Lankidetzak proiektuak batik bat prestakuntzaren ingurukoak dira, eta hainbat herrialdeetako sindikatuarekin garatu dira: Indonesia, Kanbodia, Bangladesh, Tailandia, Nepal, Arabiar eskualdea, Mendebaldeko Sahara, Palestina, Benin, Boli Kosta, Haiti, Honduras, Nikaragua, Guatemala, El Salvador eta Kolonbia. Kongresuari gogorarazi nahi diogu gure proiektuak finantzatzeko sindikatuaren funtsak baliatzen ditugula; administrazioetatik ez dugu dirurik eskuratzen.

Duela hainbat hamarkada hasi eta Saharako UGT-Sario laguntzeko proiektuarekin jarraitu dugu. Gainera, beste proiektu batzuk ere egin ditugu CADTMrekin Afrikan, Egiaren Batzordearekin Kolonbian, eta laguntza eman dugu Myanmarreko greba-funtserako.

#### **d) Zerbitzu juridikoak. Oinarrizko tresna errealitate gero eta konplexuagoan**

Lan erreformek, arlo publikoan ezarritako murrizketek, enpresek eskubide indibidual eta kolektiboak etengabe urratu izanak eta genero diskriminazioak ekarri gaituzte pairatzen dugun prekarizazio testuinguru honetara. Honen aurrean sindikatuko Zerbitzu Juridikoak ezinbesteko tresna ditugu, baita estrategia sindikalaren osagai ere, prekariedade kasuei behar bezala aurre egiteko.

Heldu beharreko gaiak gero eta konplexuagoak izanagatik ere (lagapen ilegala, konkurtsoak, EEEen judizializazioa, kontratu publikoen inguruko arazoak, subrogazioa, autonomo falt-suak...) gure lantalde juridikoak urtero makina bat erreklamazio bideratzen du, banakoenak zein kolektiboak, era guztietako eskubide urraketen kontra. Urtero batez beste 8.963 dossier juridiko ireki dira, hau da, 2016 urtean baino %7,5 gehiago. Halaber, urtean batez beste 8.235 pertsonari eman zaio arreta, eta afiliatu berrien ia %21 arreta juridikoa jasotzeko etorri da. 2021ean goranzko joera bere horretan dago: Abuztura arte 6.616 dossier ireki ditugu.



Gainera, hainbat auziren inguruan oihartzun politiko eta sindikal handia izan duten epaiak irabazi ditugu. Denak zerrendatzea ezinezkoa denez, aipa ditzakegu grebarako eta askatasun sindikaleko eskubidea urratzeari buruzkoak (Alfa, Mercadona, Gipuzkoako TAO, Baiko enpresako pelotarien greba...), gehiegizko zerbitzu minimoak (2018ko Martxoaren 8ko greba, Petronorreko kontratatetako metalaren greba...), legez kanpoko lagapena (CIE Mecauto), emakumeen diskriminazioa (guraso bakarra den amak haurra jaiotzeagatik jasotzen den prestazioa 8 aste gehiagoz izateko aukera, Osakidetzan haurdunaldiko arriskua medio kontratatu ez izana...), kaleratze kolektiboak (PCB, Tubacex), ABEEak (Deia...), arlo publikoan izandako murrizketak (Osakidetza karrera profesionala, justiziako lanpostuen balioespena, Foruzaingoko soldata-atzerakin...).

Eskari eta lan-karga gero eta handiagoa denez, kongresu arteko aldi honetan hainbat erabaki hartu dugu:

- Zerbitzu juridikoa osatzen duen lantaldea 65 lagun izatetik 81eraino zabaldu da. Hala ere, lana pilatzen den une batzuetan kanpoko laguntza behar izaten da, eta horretarako lurralde guztietan kolaboratzaile talde egonkor bat zabaldu eta kontsolidatu dugu.
- Orain badugu Zerbitzu Juridikoaren koordinatzaile bat; honek, bulego juridiko konfederalaren laguntzarekin, gai kolektiboetan jarduteko irizpide teknikoak finkatzeko aukera eman digu, baita koordinazio zein komunikazioa hobetzeko ere, barnera eta kanpora begira.
- Zerbitzu Juridikoetan sortzen den informazioa eta jakintza sindikatuan jakinarazi eta partekatu ahal izateko Buletin Juridikoa argitaratu dugu hilerio; honetan hileko epairik garrantzitsuenak biltzen dira. Oro har eskualde guztiek igortzen diote informazio hau bulegoari, baina badaukagu hobetzeko tartea, talde bakoitzak egiten duen bidalketari nahiz genero ikuspuntutik interesa duten gaiak jasotzeari dagokionez.
- Garrantzia eman diogu zerbitzu juridikoko kideek organoetan, esaterako Eskualde Batzordean, parte hartzeari. Izan ere, eskualde gehienetan lortu dugu.
- Prestakuntzan, Zerbitzu juridikoko kide guztientzat urtero ematen diren ikastaroak ez ezik prestakuntza tekniko-juridikoko plan bat ere egin dugu sartzen diren berrientzat; hau zabaldu egin beharko da.

Lan osasunaren arloan egiaztatu dugu kongresu arteko aldi honetan lantalde espezializatu bat beharrezkoa dela zenbait gairi behar bezala heltzeko, adibidez lan istripu larriei, gaixotasun profesionalei (amianto, silikosisa...), edota arrisku psikosozialei. Horretarako Zerbitzu juridikoa indartu egin zen gai hauetan espezializatu den abokatu batekin, eta emaitza positiboa izan da. Lan osasuneko arloarekin batera lan eginez berrikuntza egin dugu, bide berriak ireki eta lorpenak izan; horrela bizi eta osotasun fisikoa izateko oinarrizko eskubidearen defentsan aurrera egin dugu. Aipatzeko moduko batzuk: pandemian langileen segurtasuna hobetzeko kautelazko neurriak eskatzeko bide berritzailea, amiantoaren eta silizearen kontrako borroka juridikoan izandako arrakastak Sidenor, CIE Automotive eta beste enpresa batzuen aurka, edota prebentzioan egindako aurrerapausoak; kalteordain prebentibo bat lortu genuen arrisku egoera sortu zelako (Donostiako Metroaren lanetan).

Aurrez izandako eskarmentu honek eraman gaitu prozesu horretan aurrera egitera; horregatik, aurtengo martxoan Bidelagun Fundazioa eratzea erabaki genuen. Bere xedea Kongresuko ponentzian azalduta dago. Nahi dugu lan osasuna enpresentzat kezka izatea, baita

langileei kalte egiten dietenek garesti ordaintzea ere. Horretarako Zerbitzu juridikoak indartu egingo ditugu, gure afiliatuek jasandako kalteak ordain daitezen eta sindikatuak ikas dezagun enpresen aurrean osasunerako eskubidea hobeto defenditzen.

#### e) Egokitzapenak eta komunikazio-tresna berriak

Azken lau urteetan Komunikazio Plana sortu eta garatu dugu, arlo honetako eremu guztiak analizatu ondoren. Interneten hedapena eta, batik bat, sarearen eragina zeharo areagotu da; honek behartu gaitu sindikatuaren ekintzak komunikatzeko modua aldatzera. ELAren mezua itsaso itzel horretan kokatzea erronka zaila da. Egunkari, telebista eta irratiek ELAri ematen dioten arreta mugatua da, baina zailtasun hauek gorabehera sindikatuaren posizioa egunez egun defenditzen dugu.

Komunikazio Planaren lehen urratsa izan da Estilo Liburu berria, ELAren irudi korporatiboa modernizatu eta arautu beharra baitzegoen (logoak, koloreak tipografiak, pankartak...).

Halaber, gure afiliatuekiko komunikatzeko bideak ere berritzea ezinbestekoa zen; analisi zorrotza eginda, argitalpen inprimatuekin jarraitzea erabaki genuen, baina behin eskaintza ordenatutakoan. Horrenbestez, Alda aldizkaria sortu dugu, 100.000 afiliatuentzako tresna berria. Kalitatezko produktu bat egin nahi dugu, eremu sindikaletik harago iritsiko dena.

Landeia aldizkaria ere indartu dugu. Ikuspuntu praktikotik ELAko ordezkari sindikalentzako argitalpena da: bi hilean behin 9.000 ale banatzen dira, jarduera sindikalerako informazio erabilgarriarekin (federazioen kanpaina, atal sindikalei buruzko edukiak, orrialde juridikoak...).

Bilakaera honetan Astekaria ere berritu dugu; dagoeneko ez dugu inprimatzen, medio digitala bihurtu delako. Sindikatuko albisterik garrantzitsuenak astero 50.000 afiliaturi posta elektronikoen bidez iristen zaizkie, modu pertsonalizatuan, bere federazio zein eskualdeko gaiak lehenetsiz.

Informazio fluxu honekin jarraitzeko ezinbestekoa gertatu da gure webgunearen diseinua berritzea (orain sakeleko telefonoetan ere irakur daiteke) eta edukiak bestela ordenatzea: federazio, eskualde eta atal sindikal bakoitzak bere lekua du, langileengana ahalik gehien hurbiltzeko. Sareetako gure lana gero eta handiagoa da: Twitter, Facebook eta Telegram kanala baliatzen ditugu gure eguneroko ekinbide eta mezuak hedatzeko. ELAko jarraitzaileen kopuruak etengabeko hazkundera izan du: azken bi urteetan Twitterren %31eko igoera izan dugu eta Facebooken, %47koa.

Hala ere, aurre egin beharreko erronka egunetik egunera aldatuz doa, ikuspuntu teknologikotik, eta tokiko gure militanteen bidez sare gero eta trinkoagoa izatea lortu behar dugu; halaber, analizatu behar da beste sare sozial batzuetan sartzeko aukera.

Sare digitalei dagokienez, ikus-entzunezko ekoizpenak garatu ditugu: lan gatazkak edo ekintzak azaltzeko bideoak, baina baita podcastak ere, elkarrizketa eta gai monografikoekin. Komunikazioak eskaintzen dituen bide guztiak arakatzeko asmoa dugu, beti ere sindikatuaren mezua modurik egokienean hedatze aldera.

Kanpora begira, lau urteotan ELAk azkenik sartu ahal izan du EITBko Administrazio Kontseiluan. Aurreko legegintzaldietan pairatu genuen diskriminazioa zuzendu da, izan ere, Legebiltzarrak, ordezkaritza sindikalari entzungor eginda, sindikatu nagusiari ez baitzion lekuri



egin organoan. Orain lehen eskuko informazioa izateko aukera dugu, eta analisi kritikoa zein proposamenak egiteko ere, euskal erakunde publiko hau gizarte guztiaren zerbitzura egon dadin, ez soilik eliteena, informazioa eta eztabaida sozial eta demokratikoa aberastu dezan eta gure hizkuntzaren hedapen egokiagoa lortzeko lagungarri izan dadin.

#### **f) Manu Robles-Arangiz Fundazioa**

Prestakuntza-atalean, Manu Robles-Arangiz Fundazioak liberatuentzako eta ordezkarienezko prestakuntza-plana berritu du urte hauetan. Lana oraindik ez dago osatuta, baina liberatutako pertsonetatik hasita, lanpostu guztiak definitzen ari dira kudeaketa-sistemako taldearen laguntzarekin, lanpostu bakoitzerako beharrezkotzat jotzen ditugun gaitasunak, jarrerak eta balioak ezarriz, eta, hortik abiatuta, beren eginkizuna betetzeko beharko duten prestakuntza eta gaikuntza definituz. Lanpostuen eskakizunetatik eta pertsona bakoitzaren beharrian eta asmoetatik abiatuta, eskaintza pertsonalizatu bat planteatuko dugu, prestakuntza kolektiboz eta indibidualaz osatua, prestakuntza ideologiko, antolamenduzko eta tekniko gisa sailkatuz. Prestakuntza tradizionalaz gain, autoprestakuntzarako tresnak sortzen ari gara. Proiektu hori osatuta dagoenean, ordezkari guztiei zabaltzea aurreikusten da.

Garapen informatikoan urratsak ematen ari gara, prestakuntza-ikastaro, -jardunaldi eta -jarduera guztien jarraipena hobetzeko. Era berean, sinadura digitalak QR kodeen bidez ezarri eta biltzen hasi gara, eta horrek gure administrazio-lana murrizten du, eta LEPen protokoloa diseinatu eta hobetu da. Hemendik aurrera, ia prozesu osoa modu digitalean kudeatuko da.

Ordezkeri berriak prestatzeko ikastaroari zentralitatea ematen jarraitzen dugu. Milaka ordezkariak parte hartzen dute bertan kongresu arteko aldi bakoitzean; kasu askotan, sindikatuarekin lehen harreman pausatua da, eta proiektuan, ereduari, estrategian eta antolaketan sakondu dezakete.

Argitalpenen ekoizpen eta banaketa hobetu egin dugu. Halaber, diseinua hobetu da, baita webguneara eta fundazioaren irudi korporatiboa ere. Kanporako hedapena zabaldu egin da; posta elektronikoa, Twitter (2.036 jarraitzaile) eta Facebook (675 jarraitzaile) gainera, Telegram kanal bat ere ireki dugu (203 jarraitzaile ditugu hemen).

Haatik, barnera begira ez dugu lortu argitalpenen irakurketa datuak hobetzerik. Hauen eragin eta jarraipena ere ez da areagotu. Alabaina, eremu honetan erreferentzia gara oraindik, baita prestakuntzarako doako material ugari jartzen dugulako ere. Gure argitalpenek, batik batik Azterketa Bulegoak egiten dituenek, ospe handia dute sindikatutik kanpo ere, eta jarraipena dute eremu sozialean, politikoan, akademian, zein militante eta arduradun sindikalen artean.

Orientatze aldera, Telegram bidez igorritako euskarazko argitalpenak 200 bat lagunek irakurtzen dituzte, eta gaztelaniazkoak, 300 inguruk. Alta, zenbait artikuluren kasuan 2.100 pertsonarengana ere iritsi izan gara. Bestalde, 2.000tik gora dira Ostiraleko artikulua digitala irekitzen dutenak.

Aspaldidanik ari gara saiatzen eremu akademikoan sindikalismoaren ikerketa egin dadin, gure unibertsitateetan hau gabezia handia baita. Kezka honen ondorioz mundu sindikala ikertzeko prest dauden zortzi lagunekin lanean ari gara, eta hainbat azterketa, ikerlan, inkestak, artikulua eta argitalpen sustatu dugu.

Adi gaude prestakuntza arloan datozen berrikuntza teknologikoei eta etorkizuneko joerei, zeintzuk sindikatuan ezarriko diren. Gainera, pandemiak bultzada handia eman dio kontu honi. Sortu dugu, batetik, Moodle plataforma bat autoformazio saioretarako –orain edukiak sartzen ari gara hemen–; bestetik, BigBlueButton plataforma bat ikastaro eta mahai-inguruetarako.

Fundazioak sindikatuaren Dokumentazio Zentroa elikatzen jarraitzen du, kontsultarako gune gisa eta argitalpen zein liburuen mailegurako, baita Artxibo Historikoa ere, zeina indizatuta eta hein handian digitalizatuta dagoen.

Azkenik, aipatzekoa da kongresu arteko aldi honetan Fundazioa estatu mailan sortu den Foro Soberanistaren kide egin dela; bertan estatu guztiko Fundazio soberanistak elkartu dira, batik batik alderdi eta sindikatuei lotuak. Foroa elkartruckerako gune oso interesgarria da; nabarmentzekoa da sortu duen Eskola Soberanista, non sindikatuko hainbat militante gaztek parte hartu duten.

#### **g) ELAren urrats berri bat Iparraldean**

Iparraldean lan handia egin da; bereziki aipatu nahi dugu Alda erakundearen sorrera, Manu Robles-Arangiz Fundazioko militanteek eta beste eremuetako aktibistek bultzatua, eta ELAk sostengatua. Klase herrikoiek beren bizi-eremuan dituzten berehalako beharriaz erantzuna eman nahi dien erakunde hau sortu izana albiste ezin hobea da. Bere jardueraren hasiera, ia-ia pandemiaren ondorioz ezarritako salbuespenezko neurriekin batera gertatu dena, baldintzatuta geratu da, baina honek ez ditu galarazi egundoko eragina izan duten kanpainak (esaterako, etxebizitzaren ingurukoa), arazo konkretuei heltzea edota bere argitalpena banatzea lan egiteko hautatu diren auzoetan.

Iparraldean Fundazioaren helburu nagusietako bat da erakunde sozial eta klimatiko alternatiboen ekosistema bat elikatu eta indartzen laguntzea; bestalde, Fundazioak orain arte egin duen bezalaxe eskaintzen jarraitu nahi du aktibismo sozial eta abertzalearentzako preskakuntza eta gogoeta gune bat.

Iparraldeari buruz, ezin aipatu gabe utzi Mixel Berhokoirigoinen heriotza, maiatzean. Hil zenean esan genuen pribilegioa izan dela “bere adiskide izatea. Pertsona eredugarria izan da, benetako nekazari eta sindikalista eta goitik beherako lider abertzale buruargia. Harekin ikusmoldeak eta borrokak partekatu izan ditugu, esaterako Euskal Herriko Laborantza Ganbararen ingurukoa”. Aurreko ohiko kongresu konfederalean omenaldia eskaini genion Bakegileen kide nabarmen izan zelako. Mixel ELAren adiskide, aliatu eta lagun handia izan zen. Agur eta ohore!

#### **h) Euskara**

Antolakuntzari buruzko atalean dagoeneko aipatu ditugu barne-eremuan egindako urrats batzuk. Oraingoan beste eremu batzuetan bultzatu ditugun ekintzak ekarriko ditugu gogora.

Urola-Kosta eskualdean LABekin eta Kontseiluarekin batera Euskara Planak sustatzeko dinamika bati ekin genion. Emaitza gazi-gozoa izan da: batetik, enpresa batzuetan aurrera egin dugu, baina bestetik, eskualde honen potentziala handiagoa da lortutako emaitza baino. Edonola ere, esperientzia honekin ikasi dugu zerbait, eta gure militanteen bultzada



eskertu beharrekoa da; esperientzia honen ondorioak lagungarri izango dira urrats berriak egiterakoan.

Kongresu arteko aldi honetan Euskaraldiaren bi ekitaldi izan ditugu. Ekintza honek muga ideologiko oso argiak ditu: erakundeen ardura lausotzen du eta euskal hiztunen eskubi-deak gauzatzeko ardura erabat banakoengan kokatzen du. Alabaina, hari esker testuinguru egokiak sortu dira, eta euskaldun jendea ahaldundu ere egin da; horregatik parte hartu du ELAk bi aldietan. Pandemiaren poderioz ezin izan dugu behar adina baliatu 2020koa gure helburua iristeko, enpresetan Euskara planak sustatzea, jakinik hau dela sindikatuarentzako erronka nagusia.

Azken lau urteotan ELAk euskararen inguruko bi ekinbide bultzatu ditu. 2019an Eusko Jaurlaritzari eta Nafarroako Gobernuari helarazi genien euskaldunen hizkuntz-eskubideak babesteko dekalogoia, zeinak neurri konkretuak planteatzen zituen eskubide horiek gobernuen politiketan modu transbertsealean bermatzeko. 2020an Kontseiluarekin eta LABekin batera, CENi eta Confebaski eskaini genien 50 langiletik gorako enpresa guztietan Euskara Planak negoziatzeko beharrezana adostea.

Euskararen aldeko hainbat herri ekitalditan parte hartzen jarraitu dugu, esaterako Korrikan edota Kontseiluaren deialdietan.

## **10. Onartzeko eskaera**

Duela lau urte Batzorde Eragileari agindu bat eman zitzaion; eta esan bezala, hura inola ere espero ez zitezkeen baldintzetan bete behar izan dugu. Baina gure eginkizuna gauzatu bada, hau izan da aginduarekin batera sindikatuko militante eta arduradunek lantalde honengan, Batzorde Eragilearengan, konfiantza handia jarri duelako. Eskertzen dizuegu zuzendaritzari eman diozuen etengabeko estimulua, babesa eta aitortza. Benetan eskertu ere. Erakunde hau gidatzea ohorea eta pribilegioa da.

Hasieran ere esan dugu: kudeaketa txostenak gure bultzadaren berri ematen du, ia soilik horri buruzkoa, benetako protagonistak zuek baitzarete, sindikatuko militanteok. Militantziarik gabe zuzendaritza lana alferrikakoa izango litzateke.

Jakina, akatsak egin ditugu, eta espero dugu Eskualdeek eta Federazioek garaiz adieraziko digutela txosten honi emango dioten erantzunean. Eta gauza batzuk, aitortu dugun bezala, ez ditugu burutu.

Baina honek guztiak ez digu eragozten hiru gauza zintzotasun osoz esatea::

- Lehena, emandako agindua nahikotasunez bete dugula uste dugula.
- Bigarrena, barne-kohesio osoz egin dugula, pitzadurarik gabeko talde gisa, erantzun beharreko erronkak eskatzen zuen bezala..
- Eta hirugarrenik, gure onena jarri dugula zeregin horretan.

Horregatik guztiagatik, kudeaketa txosten hau onartzeko eskatzen diogu Kongresuari.